

14



Gabriel Jauregi
Batxilergorako materialak

Etorkinak eta esplotazioa Kulturaniztasuna eta integrazioa

Elena Mendizabal Ibarluzea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

14

Etorkinak eta esplotazioa Kulturaniztasuna eta integrazioa

Elena Mendizabal Ibarluzea



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma (iruzkigintzarako testuak)
2. Mikroekonomiaren oinarriak
3. Energia baliabideak. 1. Batxilergo teknologikoa
4. Arte marrazketa
5. Oinarrizko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta mekanismoak
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan
7. Filosofiaren historia
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte Filosofia
9. Motorrak
10. Logika-sinbolikoa
11. Ekonomia-politikoa. Merkataritza saila eta marketina
12. Bolumena
13. Filosofia: 5 Filosofo
14. Etorकिनak eta esplotazioa: kulturantzatasuna eta integrazioa

Argitaldia:	1. ^a , 2009ko urria
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Elena Mendizabal Ibarluzea
Fotokonposizioa	Composiciones RALI, S.A. Particular de Costa, 8-10, 7. ^a - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S.A. Carretera Lutzana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-3013-3
L.G.:	BI-2920-09

AURKIBIDEA

0. SARRERA	7
1. BI KONTAKIZUN GOGOETAGAI	11
1.1. Lehen kontakizuna: «salbamendu-txalupa»	13
1.2. Bigarren kontakizuna: «Nest Kafe»	14
1.3. Aurreko gogoeten gehigarria	16
2. ZER DIRA MIGRAZIOAK? HISTORIA LABURPENTXOA	19
2.1. Migrazioaren historia	21
2.2. Emigrazioa European	21
2.3. Emigrazioa Espainian	25
2.4. Euskal Herria: emigrazio-herria	28
3. NAZIOARTEKO IMMIGRAZIOA	31
3.1. Sarrera	33
3.2. Hainbat arrazoi «giza uholdea» ulertzeko	34
3.3. Nora emigratu?	43
3.4. Migrazioen ondorioak	49
4. HITZEN ERAGINA. AURREIRITZIAK	55
4.1. Kontzeptu batzuk argitzen	57
4.2. Aurreiritziak migrazioaz eta immigrantez	59
4.3. Hedabide eta politikarien erantzukizuna	67
5. INTEGRAZIOA ETA KULTURARTEKOTASUNA	71
5.1. Zer da integratzea edo gizarteratzea?	73
EPILOGOA	75
BIBLIOGRAFIA ETA ZENBAIT WEB ORRI	79

Sarrera

0

Ezjakintasanak eta oroimenik ezak iragana behar baino maizago ahantzazten diguten arren, ugari-ugari dira bizirik irauteko lanpostu edo babes politiko bila atzerrira joateko –emigratzeko, alegia– premia izan duten herriak; hala nola espainiarrak eta euskaldunak. Berez dramatikoak izan ohi diren emigrazioaldiak eta emigrazioa bera eragiten zituzten krisi-boladak bukatutakoan, gerta liteke garai batean emigratzaile izan zen herria herri hartzaile bihurtzea. Beraz, ez gintuzke harritu beharko ikusteak gure herriak behinola izan zituen premia berberak dituzten beste herri batzuk datozkigula.

Ia-ia egunero, Iberiar penintsulara edo Kanarietako uharteetara leher eginda dauden im-migrantez gainezka heltzen diren ontzi (kaiukoak, paterak) ziztrinen berri izaten dugu. Beste batzuetan, etorkinei buruzko albiste asaldagarriak jasotzen ditugu: gatazkak izan direla nonbait, hilketa gertatu dela halako tokitan... Bestalde, askotan esan eta entzuten dugu gero eta etorkin gehiago datorrela Euskal Herrira; eta, egia esateko, azken urteotan gorputz– ezaugarri, hizkun-tza, janzkera, ohiturak, erritoak, erlijioa eta, finean, mundua eta bizitza ulertzeko beste era bat dituzten bizilagunak ikusten hasi gara gure herrietan: marokoarrak, senegaldarrak, ekuadorta-rrak, errumaniarrak, kolonbiarrak...

Bizilagun berri horietaz gutxi (edo ezer ere ez) jakin arren, badugu horiei buruzko iritzia, maizegi ezertan ere oinarritzen ez dena. Horregatik, informazio eta heziketa egokiak behar di-tugu, hausnarketa kritikoa egin behar dugu, aurreiritziak eta estereotipo guztiak apurtzeko.

Izan ere, migrazio-mugimenduak etengabeak izan dira historian zehar; baita euskalduno-nak ere, jakina. Baina beti-betidanik gertatzen den fenomeno izanik ere, azken urteotako mi-grazioak ezaugarri berriak ditu, globalizazioaren, mundualizazioaren garaian jazotzen ari de-lako, batetik, eta bere baitan askotariko arrazoiak daudelako, bestetik. Konplexua da, beraz, migrazioaren fenomeno; eta, egokiro jokatu nahi izanez gero, berori ulertzeko ahaleginak egin beharrean gaude, dudarik gabe.



Ezinbesteko dugu egungo migrazioaren konplexutasun hori ulertzea, gure gizarteak ha-
maika arazo, erronka eta aukera berri izango baititu gizarte-mespretxuari, arrazakeriari, eta
besteren duintasunaren degradazioari mugak jartzeko; bai eta kulturen arteko tolerantzia bul-
tzatu, eta gaurko eta biharko elkartasunaren bideak urratzeko ere.

Kontuan izanik, bestalde, gaur bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz langabetuen
kopurua handituz doala, eta horregatik kulturen arteko gatazkak areago daitezkeela, behar-be-
harrezkoa deritzagu informazioa eta elkartasunaren balioak ereiteari, betiere gure emigratzaile-
iragana gogora ekarrita.

Gorago aipatu dugun hausnarketa kritikoa egiterakoan, eta sarrera moduko hau bukatu
aurretik, esan dezagun argi eta garbi migrazioa aipagai den orotan topo egingo dugula etorki-
nenganako gorrotoa zabaltzeari etekin politikoa atera diezaioketela pentsatzen duten jaun/
andretxo eta politikariek. Hortaz, erne egon beharko dugu manipulazioari aurre egiteko, zeren
arrazistak ez garela uste badugu ere, eta inkestek solidarioak garela dioten arren, aski izaten
baita geure azalik azalekoena doi bat karrakatzea elkartasuna zein erraz ahultzen zaigun ohar-
tzeko. Hona hemen zenbait egoera, esan berri dugunaren argigarri: migratzaile asko biltzen dira
kale berean, langabetuen kopuruak gora egiten du, atzerritar batzuk geure etxepe berean bizi-
tzera etorri dira, diskotekan *kanpotar* horiek *gure neskei* begira ikusten ditugu, lapurreta-bolada
izan dugu auzoan... Horiek eta antzeko beste gertaera batzuek kolokan jartzen dituzte hainbaten
abegia eta solidaritatea.

*Bi kontakizun
gogoetagai*

1

1.1. LEHEN KONTAKIZUNA: «SALBAMENDU TXALUPA»

Ur handitan sartu aurretik, darabilgun gaiaz gogoeta egiten lagungarri izango ditugun bi kontakizun labur, bi parabola xume, dakartzagu lerrootara. Bata («Salbamendu-txalupa») zein bestea («Nest Kafe») Julian Bagnini-ren «El cerdo que quería ser jamon» liburutik ateratakoak dira (Paidòs argitaletxea, 2007).

«Ongi», esan zuen Rogerrek, bere burua txalupako kapitaintzat hartuta. «Txalupa honetan hogeit hamar pertsona sar daitezkeela kontuan izanda, zorte ona izan da hamabi besterik ez izatea. Gainera, bizigai nahiko daukagu norbait gu erreskatatzera etorri arte; eta hori hogeita lau ordu barru-edo gertatuko da. Horregatik, bakoitzak txokolatzeko galleta bat eta tragoxka bat ron har ditzakegula uste dut. Denok ados?»

«Beste galleta bat jatea asko gustatuko litzaidake, baina, lehenengoz, ez al genuke txalupa eramane beharko laguntza eske daukagun emakume horrengana?», galdetu zuen Mates jaunak. «Ordu erdi bada itotzen ari dela», gaineratu zuen.

Batzuek begirada makurtu eta txaluparen hondora begiratu zuten, lotsatu antzean; beste batzuek, burua mugitzen zuten gertatzen ari zena uxatu nahi balute bezala.

«Ados geundela uste nuen», esan zuen Rogerrek. «Itotzen bada, ez da gure errua izango, eta, bestalde, erreskatatuz gero, ezingo ditugu jan sobran ditugun errazioak. Beraz, gauden moduan segitzea komeni zaigula uste dut.» Gainerakoek, ahopeka, oniritzia adierazi zioten kapi-tain ustekoari.

«Zer dela-eta? Galdetzea ere! Bada, emakumea uretatik atera genezakeelako eta salbatu; laster egiten ez badugu, hil egingo da, bestela. Ez al da hori arrazoi nahikoa?», Matesek.

«Hau bizimodu kaxkarra!» kexatu zen Roger. «Hiltzen bada, ez da izango, behintzat, guk hil dugulako. Nork nahi du galleta bat?».

1.1.1. Gogoeta

Oso erraz interpreta dezakegu parabola moduko hori: txalupa Mendebalde aberats eta garatuaren irudia da. Itotzen ari den emakumeak, berriz, irudikatzen ditu elikagai faltagatik edo saihesten daitezkeen gaixotasunengatik garapen-bidean dauden herrialdeetan hiltzen diren pertsonak. Interpretazio horren arabera, gure mundu garatuaren jarrera Rogerrena bezain ankerra da. Izan ere, denontzako jaki eta botika nahiko –eta gehiegi– edukita ere, nahiago izaten dugu luxuaz gozatu eta beste batzuk hiltzen utzi, *naufra*goak salbatu eta soberako *galleta*rik gabe gelditu baino. Txalupako pertsonak amoralak irudituko zaizkigu, agian, baina, gu, mendebaldar aberatsok, ez gara haiek baino hobek.

Kontakizun berak beste interpretazio bat egiteko bidea ere ematen digu: txalupak Lur planeta adierazten du, eta txalupan dauden lagun batzuek beste batzuei elikagaia ukatzen diete. Kasu horretan, amoralitatea askoz ageriagoa da. Uretan itotzen ari dena txalupara ekartzeko ahaleginik ez egitea krudela izanagatik ere, are krudelagoa da erreskatatuei bizigaiak ukatzea.

Irudi horrek igortzen digun mezua ikaratzeko modukoa da, bai; baina... sinesgarria ote da? Norbaitek esan lezake eszenatokiz kanpo utzi dugula Iparmendebaldean sakrosantu bihurtu dugun jabetza-eskubidea. Norenak ziren, bada, *galletak*?

Baina txalupako ondasunak behar dituztenentzat dira, eta inork ezin du gainerakoek baino eskubide gehiago aldarrikatu ondasun horietaz jabetzeko. Ez da zuzena, beraz, beharrezan arabera ez banatzea. Hala ere, ondotxo dakigunez, mundu errealean janaria eta bestelako ondasunak ez dira egoten nork banatuko zain; ez horixe! Aberastasuna lortu, irabazi egiten da; eta, hortaz, inork ezin dit leporatu sobera dauzkadanak neurtzat hartzea beste norbaiti bidegabeki kentzea bezala dela, legez nirea dena gorde besterik ez baitut egiten.

Nolanahi ere, agerian jarraitzen du amoralitateak. Aurrekoari jarraituz, pentsa dezagun orain txalupako jangaiak ontzian gaudenonak direla eta ez beste inorenak, eta itotzen ari den emakumearen premia konturatu garel. «Hil dadila; *galleta* hauek nireak dira» esatea ez al litzateke guztiz gaitzesgarria? Emakumea hiltzear egoteak ez al gintuzke bultzatu beharko gure ondasunen atal bat berari ematera?

Nazio Batuen Elkarteak (NBE) herrialde garatuaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 0,7 garapen-bidean dauden herriei ematea erabaki du. Orain arte herri garatu gutxi egiten dute, nahiz eta, bizi-kalitateari dagokionez, bertako jende gehienari irabazien % 1 emateak ez liokeen inongo kalterik egingo. Honako hau erakusten digu txaluparen analogia, edo parabola delako honek: ez garel zintzoak % 0,7 hori ematen dugulako, baizik eta, ematen ez badugu, gaiztoak garel.



«Munduko toki guztietan egon naiz eta globalizatu ikusi dudana bakarra pobrezia izan da» Federico Mayor Zaragoza. UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) zuzendari-ohia.

1.2. BIGARREN KONTAKIZUNA: «NEST KAFE»

Sarritan egoten zen Eric *Nest Kafe*n. Janaria eta edaria ez ziren apartak, baina bai benetan merkeak. Behin, gerenteari galdetu zion ea nola eman zezaketen dena hain merke. Horrek, ezkutuan bezala, honako hau xuxurlatu zion: «Erraz-erraza da. Nire langile guztiak afrikarrak dira. Premia handia dute, baina ezin dituzte lanpostu normalak lortu. Sotoan uzten diet lo egiten, beharrena baino ez diet ematen jateko, eta 5 libera baizik ez diet ordaintzen astero. Pagotxa ederra, gero! Egun osoa ematen dute lanean, asteko sei egunez. Horrelako soldata baxuak ordainduta, prezio onak eskaini eta etekin handiak eskura ditzaket.» «Ez gaizki hartu», esan zuen kafetxeko nagusiak Eric-en begirakune gaitzesgarriaz ohartzean. «Denoi komeni zaigu. Haiek

lan hau aukeratzen dute lagungarri dutelako, nik dirua irabazten dut, eta zuok, bezeroak mauka bat lortzen duzue. Kafetxo bat nahi?»

Ericek onartu egin zion kafea, baina lokal horretan hartuko zuen azkena izango zela erabaki zuen. Gerentearen zuribideak gorabehera, bezeroa zen aldetik, esplotazioaren partaide –gaizkide– sentitzen zen. Kafea zurruputzen zuen bitartean, bere buruari galdetzen zion ea kafetegiko langileek onetsiko zuten aurrerantzean egingo zuen boikota. Eta, zalantzati, zera zioen bere artean: «norbaitek pentsa lezake hobeak direla gaizki ordaindutako lan hori eta sotoan lo egin beharra, ezer ez edukitzea baino».

1.2.1. Gogoeta

Funtsean, herrialde garatuetan bizi garen guztiok gaude Ericen egoera berean. Produktu asko merke-merke inportatzen ditugu, ekoizleek huskeria bat kobratzen dutelako. Eta hori jakinda ere, erosten jarraitzen badugu, esplotazio-egoera bidegabeari laguntzen diogu. Eric gu baino hurbilago dago eskulan merketik –esplotaziotik–, baina hurbiltasun geografiko horrek ez du, etikaren aldetik, inolako garrantzirik, ez digu-eta ebazten eskuartean darabilgun *auzi moral*a. Nahiz eta kilometro askora egon, nor edo nor esplotatzen ari gara, esplotazio horretaz kontziente ez bagara ere.

Bestalde, arazoa ez da langile haiek *ilegalak* diren ala ez; azken batean horrelako lan-politika darabilen edozein herritan ilegaltasun ugari egon daiteke-eta. Kontuan izan behar dugu, gainera, bidezko soldatak herrialde bakoitzean normaltzat hartzen dutenaren arabekoak direla; hau da, Britainia Handian *esklabo-soldatatzat* jo genezakeena lansari oparoa izan liteke Ugandan. Horretaz jakitun egonda ere, ez dugu lortuko *auzi moral*a ebaztea.

Gakoa da *Nest Kaf*eren jabea langileen premia gorriaz baliatzen dela haiei ahalik eta gutxien ordaintzeko. Oinarri-oinarrizko bidegabekeria da; langileen ongizatearekiko axolagabekeria hutsa. Era bertsuan, baliteke kafetegiko beharginak beren herrikideak (kafe-hazleak, kasu) baino okerrago ez bizitzea, baina horrek ez du arintzen mendebaldarrok langile horien soldata zuzengabeakoaz dugun erantzukizuna, gehiago ordaintzeko aukera baitauekagu.

*Esplotazio-egoera hori jasatea ezer ez izatea baino hobe*a da ez da erraz defendatzen den argudioa; eskas samarra da, egia esateko. Bidegabekeria hori ez da inondik ere zuzenduko huskeriaren edo ezerezaren artean hautua eginda, baizik eta soldata eta lan-baldintza hobeak erdietsita. Boikotari dagokionez, esan behar dugu, alde batetik, langile esplotatua lanik gabe utz dezakeen ekimena dela, baina, beste aldetik, boikotik egin ezean, bistakoa da *Nest Kaf*eren eta antzeko enpresen arteko lehia etengabeak behar bezala ordaindutako lanpostuen galera ekar dezakeela, esplotatutako beharginak hartuko dituzte-eta.

Hartara, moralaren aldetik begiratuta, ipar-mendebaldar aberatsok Ericen egoera berean aurkitzen gara: Ericek, *Nest Kaf*e deritzan negozioan gastua eginda gaizki jokatzeko badu, guk ere gaizki jokatzeko badugu langileak horrela darabiltzaten enpresetan erosita. Atera berri dugun konklusioa kezagarria da oso, ia denok esplotazioaren konplize bihurtzen gaitu-eta.

Aztertu dugunaren gisako zuzengabekeria sistematiko asko egon dira historian, hala nola Hegoafrikan izan zen apartheidaren garaian gutxiengoa osatzen zuten pertsona zuriek beltzekin zerabilten jokabide bihozgabea, esklabotzaren denboran gizarte-maila ertain eta altuko jendearen

portaera ankerra, emakumeei eskubide-berdintasuna aitortu arte gizonezkoek erakutsi ohi zuten/duten jarrera ulertezina, eta abarren abarra. Agian, denok jokatzen dugu gaizki sistematikoki, eta, agian, Ericek bezala, guk geuk ere kafea non hartu pentsatzen hasi beharko genuke.

1.3. AURREKO GOGOETEN GEHIGARRIA

Aurreko gogoeten gehigarri gisa, hona hemen kontsumo arduratsuagoa egiten lagun diezagukeen zerrenda, esplotazioarekin zerikusia duten enpresak eta enpresa horien jarduerak salatzzen dituen « El libro negro de las marcas » (K.Werner / H. Weiss, De BOLSILLO 2005) idazlanetik ateratakoa:

- Moda arropa eta kirol-oinetakoekin lotutako enpresak: Adidas, C&A, DKNY, GAP, H&M, Levi's, NIKE, Reebok, Tommy Hilfiger Corporation, Triumph...
- Automobilen fabrikazioarekin erlazionatutako enpresak: Mercedes Benz, Ford, General Motors Corp, Mitsubishi Corporation...
- Erregaiak eta petrolioaren eratorriak lantzen dituztenak: Agip (Grupo Eni), EXXON Mobil, Shell Group, Total S.A, BP...
- Farmazia-laboratorioak: Aventis, Bayer, Boehringer Ingelheim, Bristol-Myers Squibb Company, Novartis, Pfizer, SCHERING, Monsanto...
- Elikadura-industriak: Aldi/Hofer, Chiquita, Coca-Cola, Del Monte, Dole, Kraft, MacDonald's, Nestlè, Procter & Gamble, Unilever, Wal-Mart Stores...
- Umeentzako jostailu eta produktuak: Chicco, Walt Disney, Mattel...

Liburuaren egileek egin duten ikerlanaren arabera, goian aipatu ditugun enpresa horiek eta beste asko erlazionatuta daude honako delitu hauekin: esplotazioa, haur-lanaz baliatzea, gerra zibiletan nahastuta egon eta arma trafikoarekin loturak izatea, erregimen militarren lankide aritzea, petrolio-lurraldeetan bizi-baldintzak okerragotu eta hondatzea, eskubide sindikalak urratzea, ingurumenari kalte egitea, etikoak ez diren klinika-probak egitea, herri-altxorrari iruzur egitea, garapen-bidean dauden herrialdeetan oinarrizko botikak ekoitzi eta merkaturatzeari trabak jartzea, herbizida arriskutsuak saltzea, haur-elikagaiak merkaturatzeko arauak larriki haustea, arma atomiko eta pertsonen aurkako minen salerosketa...

Luzetxoa da, beraz, enpresen eta haien delituen zerrenda. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, Werner eta Weiss idazleen liburura jo dezala irakurleak, bertan aurkituko baititu, ondo dokumentatuak aurkitu ere, interesatzen zaion gaiari buruzko informazioa eta autoreek salatzen dutenaren frogak.



«Koltana eta Kongoa, Lehen Munduko krimena».

Azken hilabeteotan Kongo EDn berrindartu den gatazka eta horrekin erlazionatutako enpresak dira Werner eta Weiss-ek aztertzen dutenetariko kasu bat.



Kongoko gatazka larrialdi humanitario handiena bilakatu da Bigarren Mundu Gerraz geroztik. 1998 eta 2003 urte bitartean, Kongoko gerrak 5 milioi hildakotik gora eragin zituen, adingabeak eta zibilak gehienak, eta milioi eta erditik gora izan ziren lekualdatuak. Duela bi urte, hauteskunde aske, demokratiko eta gardenak egin eta su-eten iraunkorra lortu bazuten ere, denbora tarte horretan 800.000 pertsonatik gora lekualdatuak izan dira, eta Giza Eskubideak sistematikoki urratzen jarraitzen dute. Azken hilabeteotako gatazka armatua Europako (Erresuma Batua, Belgika eta Holanda) eta Ameriketako Estatu Batuetako multinazionalen interes ekonomikoekin lotuta dago: Kongoko EDko

lurralde honetan dauden mineral erreserben (koltana, urrea, diamantea, kobrea, kobaltoa, uranioa, eztainua...) kontrola izatea, hain zuzen ere. Tresna teknologikoak ekoizteko (telefono mugikorrak, ordenagailuak, sateliteak...) ezinbestekoak diren mineral horiek Ruandan zehar ateratzen dituzte Kongoko herrialdetik.

Haur soldaduak Kongon.

*Zer dira migrazioak?
Historia-laburpentxo*

2

2.1. MIGRAZIOAREN HISTORIA

Migrazioak bere sorlekutik beste leku batera aldatzen diren biztanleen mugimenduak dira; hau da, hitz laburrez azalduta, populazioaren egoitza-aldaketak dira. Migratzea, migratu beharra, fenomeno guztiz unibertsala da, Historiako garai guztietan eta gure planetako alde guztietan gertatu izan eta gertatzen dena.

Mugimendu horiek bi aurpegi –bi aldaera– erakusten dituzte: emigrazioa (populazioa ir-teten den lekua, herrialde igorlea, kontuan hartuta), eta immigrazioa (migratzaileak heltzen di-ren lekua, herri hartzailea, kontuan hartuta).

Bestalde, aldaketen noranzkoari erreparatuta, bi lekualdaketa mota hauek bereizi behar ditugu: barne-migrazioak, erreferentziako herrialdearen barruan bertan egiten direnak (landatiko exodoa, adibidez), eta kanpo-migrazioak, erreferentziako herrialdetik kanpora egiten direnak.

Beste bi migrazio mota hauek ere badatozkigu gogora, lekualdaketa iraupena kontuan hartzen badugu: behin betikoak eta behin-behinekoak. Azken horien artean ditugu, gainera, urtarokoak eta urte batzuetarako baizik egiten ez direnak.

2.2. EMIGRAZIOA EUROPAN

Populazio-mugimendu handiek –nahitakoek zein behartutakoek– ekarri dituzten aldaketa kultural, ekonomiko, geografiko eta politikoek eraiki dute historia. Lehen gizakiak Afrikako sabanak utzi eta munduko bazterrik urrunetara iritsi zirenetik gaur egun arte, etengabeak izan dira biztanleriaren lekualdaketak.

Aro Modernoan, itsasoz haraindiko inperioak sortzean, Europako zenbait herrialdek bes-te kontinente eta lurralde batzuk kolonizatzeari ekin zioten. Sasoi hartan nabigazioan izan ziren hobekuntzek milioika lagun lekualdaketa ahalbidetu zuten, eta horrek ondorio bitxia ekarri zuen: Europako hainbat herrialde jendegabetuz zihoan bitartean, europarrek bere herri berri ugari fundatu eta populatu zuten munduko beste toki askotan; batez, ere Amerikan –*mundu berrian*–, non hasierako inbasioak eta ondorengo ekinek genozidio anker eta deitoragarria egin baitzuten.



«Daphne» britainiar itsasontzian Portugal eta Espainiako tratulariengandik erreskatatutako ume eta gazte afrikar esklaboak. 1868ko argazkia.

Amerika hizpide dugula, esan dezakegu *mundu berri* delako hartara abiatu zirenen mugimendu gehienak nahitakoak izan zirela; baina ez dezagun ahanz bertara eramandako esklabuen migrazio handietan 9-10 milioi afrikar inguru behartu zituztela Afrikako kostetatik Amerikara joatera. Bortxaz eragindako mugimendu horiek 1470. urtetik 1870. urtera bitartean jazo ziren –jazoarazi zituzten, hobeki esanda–.

Eta, puntu hau amaitze aldera, Aro Garaikidean europarrek bizi izandako hiru migrazio motak, beste horrenbeste alditan gertatu zirenak, aipatu beharrean gaude: itsasoz bestalderako migrazioa, nahitaezkoa edo behartutakoa eta nahitakoa.

2.2.1. Itsasoz bestalderako emigrazioa

XIX. mendearen bigarren erdialdetik 1914ko Lehen Mundu Gerrara arte luzatu zen migrazio-mugimendu handiak 60 milioi europar baino gehiago eraman zituen Estatu Batuetara. Gerra hark eta geroago, XX. mendeko 30eko hamarraldian, AEBn izandako Depresio Handiak (ekonomiak jasan zuen beherakada itzela) eten edo motelarazi egin zuten itsasoz bestalderanzko pertsona-jario hura.

Hasieran, Europako erdialde eta iparraldeko herrietako (Erresuma Batua, Alemania, Irlanda, Suedia, Norvegia...) bizilagunak abiatu ziren AEBra eta Kanadara bizimodu hobearen bila. XIX. mendearen azken herenean, ordea, Europako hegoalde eta ekialdekoen (Italia, Espainia, Portugal, Polonia eta Errusiako Inperiokoak) txanda iritsi zen, eta *Mundu berri*ko lurraldeetara emigratzeari ekin zioten. Bigarren txanda horietakoek, hala ere, Amerikako erdialdera eta hegoaldera jo zuten; Argentinara eta Brasilera, gehienbat.

Britainia Handian XVIII. mendearen bigarren erdialdean sortu eta Europa osora zabaltzen hasi zen industrializazioak emigrazioaren hazkundera ekarri zuen. Horregatik, lehenengo emigratzaileak industrializazioa sortu zen herrietako bizilagunak (Europako ipar eta erdialdekoak) izan ziren. Baina zergatik emigratu zuten? Hona hemen zenbait arrazoi:

- Komunikabide eta garraioen garapenak erosoago eta azkarrago bihurtu zituen lekualdatzeak.
- Finantza-sistemaren modernizazioak munduko beste tokitan inbertitzeko aukera ekarri zuen.
- Merkatua nazioarteko bilakatu zen, eta, horri esker, *mundu berri*ko produktuak (laboreak, gehienbat) Europara heltzen hasi ziren, oso prezio lehiakorretan heldu ere, gainera. Horrek galerak eta hainbat krisialdi ekarri zizkion Europako nekazaritzari. Krisi haiek bultzatuta emigratu behar izan zuten landa-eremuko biztanle askok.

Zergatik Amerikara, baina? Bi arrazoi hauek argitu liezagukete kontua:

- Iparramerikako industrializazioa hasi-masietan zegoen. Horrek kontinente zaharreko industrializazioak erasandako ipar eta erdialdeko europarrei inbertitzeko eta lan egiteko aukera ezin hobek ematen zizkien. Eta, bidenabar, ekar dezagun gogora zenbateraino zegoen jendeztatu gabe Iparramerikako lurralde ezin hedatsuago hura. Aukera handiko tokia zen, beraz.

- XIX. mendearen amaieran, Hegoamerika nazioarteko merkatuan sartu eta nekazaritza-produktuen esportazioan espezializatu zen. Hura zela-eta sortutako lan-eskaintza zabalak hegoaldeko europarrak erruz erakarri zituen.

2.2.2. Nahitaezko migrazioak

Bigarren emigrazio-bolada nahitaezkoa izan zen, eta Lehen Mundu Gerratik (1914) 40ko hamarraldira arte iraun zuen. Gerrate haren ondoren mugak aldatu egin zirela-eta, zazpi milioi eta erdi europar herrialdez aldatu behar izan zuten. Muga-aldatze haiek alemaniar, poloniar eta greziarrei egin zieten kalterik gehien.

Garai bertsuan, Errusiar Inperioan iraultzaile komunisten garaipenari (1918) jarraitu zitzaion gerra zibilarengatik 2 milioi pertsonak ihes egin zuten Sobietar Errepublika Sozialisten Batasun (SESB) sortu berritik.

Urte batzuk geroago (1933an), boterea eskuratu bezain laster, naziek juduen eta hainbat alderdi politikoko kideen aurka abiatu zuten errepresioak bostehun mila alemaniar baino gehiagoren ihesaldia ekarri zuen.

Hamarkada berean (1936-1939) Espainiako Gerra Zibila gertatu zen. Jakinaenez, militar golpisten armadak garaitu, eta indarrean zegoen II. Errepublika deuseztu egin zuten. Garaipen hark eta ondoren ezarritako diktadura latzak 500 mila pertsona baino gehiagoren erbesteratzea eragin zuen.



Bigarren Mundu Gerra bukatu zenean, milioika pertsona gelditu ziren etxebizitzarik gabe. Hona hemen Alemaniako esparru batean ostatua hartu zuten Europako ekialdeko familia batzuk.

Bigarren Mundu Gerran (1939-1945) 50 milioi europar inguru beren jatorri-lekuetatik deportatuak, erbesteratuak edo kanporatuak izan ziren. Alemaniako naziek berek okupatutako herrialdeetako (SESB, Polonia, Frantzia...) 8 milioi europar behartu zituzten hor-hemenka erai-ki zituzten kontzentrazio-eremuetan lan egitera.

Lehen Mundu Gerrak bezala, Bigarrenak ere nabarmen eragin zien Europako mugei, eta, horregatik, muga-aldaketengatik, 14 milioi pertsona baino gehiagok beren ohiko bizilekua utzi eta alde egin behar izan zuten.

Adituen ustez, Estatu Batuetako 1929ko krisialdi ekonomikoak (Depresio Handia) Europako gizartearen eta sistema politiko demokratikoaren egonkortasuna eragotzi edo galarazi zuen, nolabait. Krisialdi haren ondorio galgarriek bultzatuta, lagunduta –edo haien aitzakian, akaso–, agertu ziren European agintera politiko autoritarioak: Italiako faxismoa, sobietar estalinismoa eta Alemaniako nazismoa.

2.2.3. Nahitako migrazioak

Bi emigrazio-ildo bereiz daitezke XX. mendeko bigarren erdialdean: alde batetik, herrialde mediterraneoetatik abiatuta, Europako ipar eta erdialdeko herriak helburu dituen (1950-1975); eta, beste aldetik, ekialdetik mendebalderantz doan eta herrialde mediterraneoetara ere iristen den ildo (1990-2000).

Mediterraneo aldean sorburu duten migrazioen arrazoi nagusia Europako herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoa da, dudarik gabe. Mendebaldeko eta erdialdeko herrialde europarrek mediterraneoek eta ekialdekoek baino garapen-maila handiagoa zutenenez, guztiz erakargarri bihurtu ziren beste herri ez hain garatu horientzat.

Gainera, Europako herrialde garatuenetako biztanleek ezin zuten inola ere ase etengabe handituz eta handituz zihoan lan-eskaintza. Bestalde, Bigarren Mundu Gerran izandako hildako kopuru handiak, batetik, eta jaiotza-tasaren kontrola eta heriotza-tasaren beharrezko ezaugarri zituen eredu demografikoak, bestetik, bideak urratu eta ireki zizkieten hobetzeko esperantzarekin Mediterraneo aldetik abiatzen ziren biztanleei.

Migrazio horietan, herrialde hartzaileen eta igorleen artean erabateko adostasuna egon zen hasieratik: hartzaileentzat mesedegarria izan zen oso, eskulan merkea lortzen baitzuten, eta herrialde igorleentzat ere onuragarria izan zen, gazte langabetu asko zituztelako, eta emigrazioa diruari esker, herrialdeok modernizatu zirelako.

Ekialdeko herrialdeetako migrazio-mugimenduak, mendebaldea helmuga zutenak, erregimen komunistaren gainbeherarekin batera hasi ziren (1989). SESB izandakoan eta ordura arte erregimen komunistak zuten Europako herrialdeetan, liberalizazio politiko eta ekonomikoa hasi zen. Herrialde batetik beste batera lekualdatzeko aukera ematearekin bat, populazioaren birbanatze garrantzitsu bat gertatzen hasi zen *Altzairuzko errezelaz* haraindiko herrietan. SESB-Bren zatiketak (1991-1996 bitartean), adibidez, 3 milioi eta erdi pertsonaren bizitoki-aldaketa eragin zuen, eta mendebaldeko Alemaniak ekialdekoan ordura arte *atxikiak* zituzten alemaniar asko eta asko jaso zituen.

Birbanatze horiek eragindako lekualdatzeei gehitu behar dizkiegu ekialdeko herrialde pobretuetatik erakargune ekonomiko bilakatu den mendebaldeko Europarantz etorri direnak. Gaur egun, arrunt samar bihurtu zaigu errumaniar, albaniar edo poloniar jatorriko jendea ikustea Europar Batasuneko herri ugarian.

2.3. EMIGRAZIOA ESPAINIAN

Espainiarra migratzailea izan da betidanik. Espainian barne-migrazioak aldizkakoak eta urtarokoak izan dira, batez ere: landatar biztanle asko urtaro jakinetan mugitzen ziren eskulan handia behar zen lekuetara, nekazaritza-lanak (garia segatu eta jotzea, mahats- eta oliba-biltzea) egiteko. Mugimenduak zabal eta erregularrak izaten ziren, laborariak Galizia, Andaluzia, Murztzia eta Valentziatik Gaztelara eramaten zituztenak. Gariaren lanekin hasi eta mahats- eta oliba-biltzearekin jarraitzen zuten. XIX. mendeko bigarren erdialdean, lekualdatzeak gutxituz joan ziren XX.aren erdialdean guztiz desagertu arte, hirigune handiak sortu zirelako eta, batik batik, landa-munduan mekanizazioa hedatzen hasi zelako.

Kanpora begira jarrita, azpimarratu behar dugu XIX. mendean mugitu ziren migratzaile espainol gehienek Amerikara alde egin zutela. Haien herrialde hartzaile nagusiak Argentina, Mexiko, Brasil, Venezuela, Kuba eta Puerto Rico izan ziren. Hara joandakoek negozioak egiteko zein bizimodua hobetzeko aukera paregabeak topatzen omen zituzten, eta eginkizun horretan mesede ederra egiten zien hizkuntza bera eta kultura berdintsua izateak.

Bizimoduaren hobekuntza xede zutela, 50.000 espainiar abiatzen ziren urtero Iberoamerikara, XIX. mendeko azken hamarkadetan. Lehen Mundu Gerraren aurreko urte batzuetan ere 150.000 lagun baino gehiagok emigratu zuten lurralde haietara. Zifra ofizial horiek osatze aldera, gehitu behar genieke ezkutuan –orain bezala, lehen ere baziren migratzaile klandestinoak– emigratu zutenen kopurua. Amerikarako jende-jario hura 1846an hasi zen, eta 1932ra arte iraun zuen; hain zuzen ere, hango herrialdeek, 1929ko krisiaren ondorioz, ordura arte zerabilten migrazio-politika aldatzea erabaki zuten arte.

Bigarren Mundu Gerraren kariatz etenda zegoen migrazio-mugimendua piztu zen berriro Espainian. Iberoamerikara jo zuten migratzaile askok, eta haietariko gehienak behin-betiko han geratu baziren ere, beste batzuk (*indianoak*), zenbait urteren buruan, Espainiara itzuli eta bertan arazo kezkarri bilakatura zegoen biztanle falta arindu zuten, hein batean.

Amerikara egiten zutena ez ezik, aipatzekoa da era berean, 1830etik 1914ra arte, espainiar askok Frantziara egin ohi zuten aldi baterako emigrazioa. Sasoilariak ziren, beraz, emigrante haiek; hots, aldi baterako baino ez zuten alde egiten. Hango soro eta arloetan sobera zegoen nekazaritza-lana egin eta berehala, sorterrira itzultzen ziren, enaren antzera. Horregatik, noski, hegazti horien modura etorri eta joan egiten zirelako, *enara* izena eman zioten migrazio edo lekualdatze hari. Gaur egun bizirik dirau oraindik sasoiariaren Frantziarako emigrazioak, nahiz mahatsa biltzeko garaian bakarrik egiten den.

Esanak esan, Amerika ez zen izan migratzaile espainolen helmuga bakarra; Afrika xede zuen emigrazio-mugimendua, aintzat hartzeko modukoa bera, egon zen Espainiatik Maroko, Aljeria, Sahara eta Ekuatore Gineara, batez ere.

Bigarren Errepublikaren garaian (1931-1936), berebiziko bultzada hartu zuen barne-migrazioak. Hiri handiak eta eskualde industrializatuak izan ziren –mundu osoan gertatu eta gerta-

tzen ari den bezala– erakargune nagusiak: Madril, Katalunia, Asturias eta Euskal Herria. 1936ko Gerra Zibilak eten zuen mugimendu hura. Hala eta guztiz ere, garaileek ezarritako errepresioa medio, milaka lagunek ihes egin behar izan zuten Europako eta Amerikako herrialde askotara.



1939ko otsailean, Gerra Zibiletik ihesi, espainiar umeak Belgikarako bidean. (Gerrako umeak).

1939an, Gerra Zibila amaitu zenean, agintari berriek (frankistek) emigratzea galarazi zuten politika autarkikoaren aitzakian, baina estatuaren ekonomia eskasak, pobreziak eta atzerapenak, eta Europak zuen langile-premia handiak zirela-eta, pertsona talde handiak abiatu ziren Europara; batez ere, Frantzia, Suitza eta Alemaniara. Izan ere, 50eko urteen bukaera aldean, sobera zeukan Espainiak Europak behar zuen lan-indar hura. Horiek hala, harako bidea hartu zuten emigrante espainol askok, bai legalek, bai ilegalek. Bestalde, urte haietan urritxoia izan zen Amerikarako emigrazioa, hango herrialdeek migratzaile gaituak eskatu eta lehenesten zituzten-eta.



Manuel Ferrolen argazkia: 1957an A Coruñako portutik Amerikara, emigratzailez beteta, abiatzear dagoen «Juan de Garay» ontzia.

Lurrik gabeko nekazari eta prestakuntza eskasa zuten langile gazteek emigratzen zuten Espainiatik Europara. Emakumezko gehienak neskame eta gizonezkoak industria-peoi joan ziren. Behargin haien guztien helburua aurrezki batzuk egindakoan itzultzea zen. Lekualdatze horien tamainaz jabetzeko, hona hemen zenbaki adierazgarri batzuk: 1959tik 1962ra bitartean, milioi erdi bat espainol irten zen Europara, eta 1962tik 1973ra arte 50.000-100.000 emigrante mugitzen ziren urtero.



«Emigrazioa» Manuel Ferrol argazkilariaren lana: Amerikara doazen senideak agurtzen.

Prestakuntza handiagoko langileak behar zituztelako, Espainiatik Europara zihoan emigratzaile-jarioa ahulduz joan zen 1967tik aurrera. Gainera, 1973an mundu osoan izan zen krisialdi ekonomikoaren ondorioz, immigratzaileen kontrako giro sozial kaxkarra sortu zela-eta, migrazio-mugimendua gelditu eta etorkinen itzulera sustatzen zuen prozesu bati ekin zitzaion. Prozesu horrek gogora dakarkigu gaur egun zenbait europar gobernuak gurera etorritakoentzat abian jarri dutena: 2008 honetan lehertu den krisiaren aitzakian, azken urteotan gurekin lanean egon diren etorkinei beren sorterrietara itzultzeko gonbita egin diete herri hartzaileen gobernuak. Aurrerantzean, itxura denez, ez ditugu beharko.



Irregularitasunaren fenomenoa 60ko hamarraldiko espainiar emigrazioan.

Iturria: J. Babiano eta A. Fernandez Asperilla.

Europarantz zuzendutako emigrazioaz gain, benetako exodo bat sortu zen Espainian, landatik hiriguneetara. Migrazio-jarioak baserrietatik probintziako hiriburuetara abiatu ziren lehenbizi, gero eskualde industrializatuera (Bartzelona, Valentzia, Madril, Bilbo, Donostia, Zaragoza, Alacant). Landa-peoiak ugari zituzten Extremadura, Andaluzia, eta Gaztela-Mantxa igorri zuten behargin gehien. Hiriren batera emigratutako langileak nekez itzultzen ziren beren jatorriko bizilekuetara, oporretan edo erretiroaren ostean izan ezik. Behin-betiko lekualdatze haiek hirien hazkunde itxuragabea ekarri zuten, eta,aldi berean, baserrialdeko herri askoren hustutzea eta hango populazioaren zahartzea eragin ere.

2.4. EUSKAL HERRIA: EMIGRAZIO HERRIA

Euskal Herria ere migrazio-mugimendu handiak izan dituen lurraldea da. XIX. eta XX. mendeetan euskaldunek Amerikara emigratu zuten, batik bat. Hura ez zen fenomeno isolatua izan, zerkusi edo lotura handia baitzeukan espainolen eta beste europarren migrazio-mugimenduekin.

Europako industrializazioarekin alderatuta, euskal industrializazioa berantiarra izan bazen ere, XIX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera, industria-gune garrantzitsu bihurtu zen Bizkaia; bai eta, espainiar estatu mailan, Katalunia, Asturias eta Malaga ere. Gipuzkoara, ordea, geroxeago heldu zen industrializazioa; baina Araban eta Nafarroan ez zen industria-alaketa nabarmenik izan XX. mendearen erdialdera arte. Bizkaiko meategiek betidanik zuten garrantzia izugarri handitu zen 1870. urtetik aurrera, bertako burdin harri, kalitate onekoa izateaz gain, lur arrasean ustia zitekeelako fama hartu baitzuen.



Bizkaiko Labe Garaiak 1896.

Iturria: Barakaldoko Udala.

XIX. mendearen lehen erdian, demografia-hazkunde polita egon zen Euskal Herrian, eta, horregatik, jende dezentek alde egin zuen Amerikara. 1877tik aurrera, aldiz, industria eta merkataritza berregituratzen eta indartzen hastearekin batera, biztanleriaren hazkunde-erritmoa nabarmen bizkortu zen, Bizkaian lehenik, eta Gipuzkoan gerotxoago. Bigarren karlistaldia bukatu eta berehala, nonahi lurra zulatzen hasi ziren mea-hobien bila burdin meak ustiatzeko asmotan.

Eta ustiatu behar eta nahi irrikatsu hark siderurgia modernoaren garaia ekarri zuen gurera. Beharra bazegoen sobera, eta Nafarroatik, Arabatik, eta, batez ere, Espainiatik milaka langile etorri ziren Bizkaira meategietan, eta, oro har, industria-zereginetan lan egitera. 1850. urteaz geroztik hasitako eraldaketa hark nekazaritzan eta artzaintzan oinarritutako gizarte hura industria-gizarte bihurtu zuen pixkanaka. Horrekin batera, emigrazio-jario ugariak iritsi ziren industria-gune berrietara eta, ondorioz, lehen sektoreak eskulan anitz galdu zuen. Populazioak, zer esanik ez, gora egin zuen Bizkaian, etorritako kanpotar haiei esker. Gipuzkoan, berriz, 1900 aldera arte

ez zen izan kontuan hartzeko biztanle hazkuntza handirik. Bide batez, esan dezagun industrializazioak Bizkaira erakarritako espainiar immigrazio-mugimendu hark ordura arteko euskal gizarte homogeneoa irabiatu eta gizarte berri eta herogeano bateranzko bidea urratu zuela.

Euskaldunen migrazio-mugimenduetan eragin nabaria izan zutela-eta, Euskal Herria suntsitu zuten bi karlistaldi edo gerra karlistak (1833-1839 eta 1872-76) aipatu behar ditugu nahi-taez. Industrializazioaren eskutik zetorren liberalismoari euskal tradizio ekonomikoaren eta lege zaharren defentsa sutsua jarki zitzaion. Liberalismoak aldarrikatzen zituen ideien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Elizaren desamortizazioa eta berorren boterea gutxitzea, foruen aldatu beharra, herritar eta herrialde –probintzia– guztien berdintasuna legearen aurrean, soldadutza derrigor egitea, bigarren eta hirugarren lan-sektoreen nagusitasuna, etab.

Bi karlistaldietan, ondo dakigunez, liberalak atera ziren garaile. Garaileok kaletarrak edo hiri eremukoak ziren gehienbat, eta horrek biziki azalerarazi zuen landaren eta hiriaren artean zegoen lehia zaharra. Bi gerretan galtzaile atera ziren euskal nekazari askok gatazkek hondatu-tako sorterrian geratu baino Amerikara alde egin nahiago izan zuten; Uruguaira lehenbizi, eta Argentinara gero. Herrialde horietan nekazari lurjabeak izateko aukera emango omen zieten, eta, ustez, ez zuten fabriketan lan egin beharko (lan gogorra izateaz gain, ugazabak kapitalista liberalak ziren, antza). Nekazari haietako askok parte hartu zuten gerora Hego Amerika garai-kidean izandako gerra zibiletan.

Azaldu eta irakurri dugunez, ukazina da Karlistaldiek euskaldunen lekualdatzeetan izan zuten eragina, baina, euskal nekazaritzak XIX. mendearen hasieran eta XX.aren lehen herenean pairatu zituen krisialdi ziklikoei ere hainbat migrazio-mugimendu sortu izana lepora diezaikegu.

Emigrazioaren zergatikoen bila segituz gero, ezin dugu albora utzi 1876an Cánovas del Castillo (1828-1897. Alderdi kontserbadoreko liderra eta, 1874-97 bitartean, zenbait aldiz, go-bernuburua) Espainiako presidente zela onarturiko legea, zeinaren arabera, Euskal Herriko gazteek ere (foruak zirela-eta, salbuetsita zeuden) hiru urteko soldadutza egin beharko bai-tzuten. Orobat, Marokon, Kuban, Puerto Ricon eta Filipinetan gertatzen ari ziren kolonia-gerretan ere parte hartzera behartuta geratzen ziren. Hori saihesteko asmotan, euskal gazte askok desertatu eta Amerikara joan ziren ihesi.

Orain arte aipatutakoak (karlistaldiak, nekazaritza-krisi ziklikoak, nahitaezko soldadu-tza...) ez ziren euskal herritarrak Hego Amerikarantz bultzatu zuten arrazoi bakarrak; honako hauek ere gogoan hartzekoak direla uste dugu: osasungintzan izandako hobekuntzaren ondorioz, biztanleria nabarmen hazi zen, eta hazkunde hori zela kausa, areagotu ziren baserriaren eta etxe-ondasunen banaketari buruzko arazoak (1526ko Foruak arautzen zuen herentziaren banaketa). Gero eta senide gehiago egoten zen familietan, baina oinordeko kopurua, handitzen ez zenez, oinordekoak ez ziren bizilagun ugari Amerikara emigratzea erabaki zuten; beste hainbatek, ordea, Espainiako administrazioan sartu edo Eliza-karrera egitea nahiago izan zuten.

2.4.1. Beste zenbait datu euskal emigrazioari buruz

Emigrazioa negozio bihurtu zen ontzizjabe, kapitain eta, nola ez, emigrantearen eta ontzizjabeen arteko bitartekari-lana egiten zutenentzat. Emigratzaileak, *Agindutako Lurrera* (Amerikara-edo) alde egin aurretik, bere ekonomia hipotekatzen zuen sarri, eta bidaiatu ahal izateko egindako zorrak herrialde hartzailean lan eginez kitatu behar izaten zituen –beste euskaldun bati ordainduta, askotan–.

Bestalde, Hego Ameriketako errepublika batzuek Espainiar estatuko immigranteak hartzeko aldeko jarrera agertu zuten. Gustura hartzen omen zituzten euskaldunak bazter haietan, zeren zakartzat bazituzten ere, pertsona langileak eta katolikoak baitziren euskal herritarrak. Horretaz gainera, gaztelaniaz ondo samar moldatzen ziren, eskolan ikasten zuten eta.

Espainiatik independendizatu ondoren, XIX. mendeko Hego Amerikako herrialde hartzaileen helburuak ziren, alde batetik, jendeztatu gabeko eremuak populatzea, hiriburuak eta kostaldeak bakarrik baitzituzten jendeztatuak; eta, beste alde batetik, garapen ekonomikoa biztanle kopuruarekin ez ezik beren izaerarekin lotuta zegoelakoan, arraza hobetzea –odol hispanoa, latina eta euskaldunena nahasita–.

Faktore horiek guztiak batera aintzakotzat harturik, uler dezakegu zertan izan zen euskal emigrazio handi hura Hego Amerikara. 1820ko hamarkadan hasi, eta 1850ko hamarkadara arte haziz joan zen; ondoren behera egin zuen 1875ra arte, eta berriro gora Espainiako Gerra Zibilaren kariatz jariora moteldu zen arte (1936-39). Nolanahi ere, 1936ko altxamenduaren ondorioz izan zen gerra hartan, atzerriratuen kopurua izaugarri handitu zen. Gerra amaitutakoan ere, erbesteratzen jarraitu zuten euskaldunek.

1960tik 1980ra barne-migrazioak gertatuko dira Hego Euskal Herrian. 1963an hasi eta 1975era arte iraun zuen Garapen Planak –agintean zegoen Francoren gobernuak abiarazitakoa– euskal ekonomiaren hazkundera eragin zuen. 1960ko hamarraldian Bizkaiak 96.000 etorkin baino gehiago hartu zituen, eta Gipuzkoak 84.700etik gora.

Kontuak kontu, barne- eta kanpo-migrazioak direla-eta, gaur egungo kalkuluen arabera, euskal jatorriko lau milioi eta erdi pertsona daude mundu osoan barreiaturik. Horietako askok, bestalde, beren izaera eta kultura ez galtzeko eta mantentzeko, Euskal Etxeak zabaldu dituzte hainbat eta hainbat herrialdetan.



*Nazioarteko
immigrazioa*

3

3.1. SARRERA

XX. mendearen erdialdetik aurrera eta azken bi hamarraldietan, batez ere, areagotu da beste kontinente batzuetako populazio-talde handien etorrera Europara. Emigrazio horren sorburuan bi fenomeno hauek topatzen ditugu:

1. Kolonia-herrialdeen indepentzia
2. Kontinenteen arteko desberdintasun ekonomikoak, eta globalizazio-prozesua

3.1.1. Kolonia-herrialdeen independentzia

II. Mundu Gerraren ondoren, kolonia-inperioak desegiten hasi ziren. Independentzia prozesu gehienak 1950aren bukaeran eta 1960aren hasieran gertatu ziren. Emantzipazio haiek metropoli ohietara zuzentzen zen immigrazio-jario iraunkorra ekarri zuten. Hasieran, administrazioan lan egiten zuten europar kolonoek eta haien familiek emigratu zuten; gero, kolonia-armadetako soldaduek; eta geroago, europar jatorririk ez baina kolonia-okupazioan parte hartzeagatik bizia galtzeko beldurra zuten biztanleek.

Britainia Handira, gehienbat, Kenia, India eta Malasiako bizilagunak heldu ziren; Frantzia, Italia eta Espainiara Ipar Afrikako herrialdeetakoak; Belgikara Kongotik (egungo Afrikako Erdialdeko Errepublika) abiatutakoak; eta, azkenik, Portugalek Angola eta Mozambiketiko eroritakoak jaso zituen.

3.1.2. Ekonomiaren globalizazioa

XX. mendeko azken herenetik aurrera, migratzaileen mugimenduen jatorria edo arrazoia bilatzen hasiz gero, globalizazio ekonomikoarekin topo egingo dugu ezinbestean. Izan ere, produkzioan parte hartzen duten faktoreen mugikortasuna eta malgutasuna –langileena, besteak beste– errazten du globalizazioak. Horren ondorioz, herrialde pobreen eta aberatsen arteko migratzaile-uholdea hedatu eta orokortu egin da.

Herrialde pobreetan ez dago ekonomia hobetzeko itxaropenik: industria-arloa jorratu gabe dute, ezin dira eta heldu herrialde garatuak duten teknologia-mailara; nekazaritzaren bitartez ere ezin dute lortu hobekuntzarik, landu ditzaketan lurra urri direlako, produkzioa mekanizatu delako, eta munduko merkatuaren eragina kontra dutelako. Hainbeste faktore negatiboz ohartzeak halako mesfidantza bat sortzen du Hirugarren Munduko herritarrengan, eta bizilekua uztera bultzatzen du makina bat jende.

Bestalde, gorago aipatu dugun mesfidantzari gehitu behar zaio garapen-bidean dauden herrialdeetako hazkuntza demografikoa, herrialde aberatsena hiru halako dena. Horrek, noski, herri superpopulatu horietan lanpostua aurkitzeko aukerak izugarri gutxitzen ditu, eta alde egiteko motibo bat gehiago ematen dio emigrantegai denari.

Kontuak kontu, herrialde garatuak Hirugarren Munduko jendea kontrolik gabe joaten hasiko zaizkien beldur dira egun, eta hori dela-bide, immigrazio-politika oso murriztailea abiarazi dute atzerritarren etorrera librea mugatzeko asmoz. Politika horrek kriminalizatzen ditu propio ateratako legeen *irazkitik* pasatu barik mundu garatuan kokatzea lortzen duten etorkinak. Immigratzaile horiek dira *papergabe* ezizenez ezagutzen ditugunak.

Herrialde garatuotan, baina, segurutzat jotzen dugu biztanleen zahartzea handituko dela datozen urteetan. 2.050ean, esaterako, Europar Batasunean biztanle kopurua 400 milioikoa izango dela aurreikusten dute adituek. Hori gauzatuz gero, lanpostu asko bete gabe geldituko lirateke, eta, horren erruz, ezingo genituzke zerbitzu guztiak eskaini, ezta gozatu ere. Horrela gertatzera, esan gabe doa Lehen Munduko ongizatearen gizarteak eta ekonomiak geldialdia edo atzeraldi kezagarria izango luketela.

3.2. HAINBAT ARRAZOI GIZA UHOLDEA ULERTZEKO

Zerk bultzatzen du gizakia bere sorterrira utzi eta beste batera abiatzera? Horra hor gaia sakon aztertu nahi duen nornahik bere buruari egiten dion galdera. Eta hona hemen soziologo, etnologo eta bestelako adituek –baita logikak eta errealitateak ere bai– aurkitu dituzten arrazoirik behinenak: pobrezia, biztanleriaren hazkundera, mugen iragazkortasuna –*porositate*–, iparraldeko herrietan lan-merkatua zabalik egotea, ekonomiaren mundializazioa, hegoaldeko herrietako lan-merkatuaren gutxitzea, globalizazio *kulturala*, katastrofe handiak, migrazio politikoak, eta *gaitasunagatiko* migrazioak.

3.2.1. Pobrezia eragindako migrazioak

XIX. mendean, Iparrak Hegoarekin zerabilen politika inperialistak erabakitzen zuen migrazio-mugimenduen norabidea. Giza jario haiek lurraldeak, pertsonak eta gizarte osoak menderatzea zuten helburu. Iparrak Hegoan hustutzen zituen bere indarkeria, teknika eta jakeria; hau da, bere kultura. Iparrak zibilizazioa, ondasunen metatzea, hazkunde ekonomikoa, eta modernitatea adierazten zuen; Hegoak, aldiz, pobrezia, *zibilizaziorik eza*, eta atzerapen kulturalaren egoitza dakarkigu gogora. Dikotomia horretatik ondorioztatzen bide da Europaren eta europarren *zeregin ezinbestekoa*, gizaki zuriaren *egiteko saihestezina*, kolonizazioa, alegia. Horra hor kolonizazioaren funtsa.

Gaur egun, ordea, apurtu egin da eskema hura; orain Iparra Hegoaldean dago, baina baita Hegoa Iparraldean ere. Gaurko populazioaren lekualdatzea alderantzizkoa da: Hegoa mugitzen da Iparrerantz eta Mendebalde ospetsurantz: jende zarpail, nonahiko pobre, langile eta errefuxiatuekin batera, unibertsitate-lizentziadunak eta delitugintzan hasi nahi ez duten gazteak ere abiatzen dira *Eldorado* berria bihurtu den Mendebalde distirasu aberatsa. Izan ere, Mendebalde Agindutako Lur berriaren gisakoa da munduko ondasungabeko anitzentzat. Esan gabe doa nazioarteko migrazioa pobreziaren kontra borrokatzeko biderik eraginkorrenetakoa dela bat, baita, bide batez, duintasuna eta heziketa erdiesteko ere.

Mediterraneora etorrira, azpimarragarria da iparraldeko eta hegoaldeko itsasertzen artean dagoen alde izugarria: Nazio Produktu Gordinaren (NPG) % 90 iparraldean aurkitzen da, eta alde hori nabarmen handitu da Espainia eta Portugal Europar Batasuneko kide direnetik. Pentsatzekoa denez, Iberiar penintsulakoak aberatsago bilakatuz joan ahala, immigrazio-herri (herri hartzaile) ere bihurtu dira.

Bestalde, kontuan izan behar dugu ere hegoaldeko gizarteetako estamentuen artean dauken distantzia itzelak: zulo sakona eta zatiketa handia dago agintari-mailakoen eta herri xehearen artean. Zatiketa soziala tarteko, baliabide nagusiak aberatsen eskuetan pilatzen dira, eta, bitartean, gobernuak deus gutxi egiten dute egoera aldatzeko, gutxien dutenak sekula aintzako-

tzat hartu gabe. Hirugarren munduko gizarte horretan, beraz, hauxe sumatzen dugu: gutxiengo batek parte hartzen du ekoizpen ekonomikoan, eta aberastasuna kudeatzen du; gehiengoa, aldiz, lehenengo sektorearen barruan baztertua dago. Hori da, hain zuzen, hirugarren munduko gizarte gehien bikoizketa estrukturala. Egitura bikoiztu horretan daukate sorburua zokoratze sozial, kultural eta politikoa.

Ikusitakoaren arabera, Hirugarren Munduko herrialde guztiek bere baitan daramatzate, nolabait, Iparra eta Hegoa. Horrenbestez, testuinguru horretan eta ikuspegi horretatik aztertu behar ditugu hegoaldetik iparraldera doazen migrazio-mugimenduak oro.



Melillako hesia: 17 km-ko hesiak bereizten ditu Melilla eta Maroko.

3.2.2. Biztanleriaren hazkundera

Aberats eta pobreen arteko desberdintasun handia dugu, zalantzarik gabe, migrazioak esplikatzen dituzten arrazoiak argienetakoa. Badugu, horretaz gain, beste arrazoi edo eragile bat, berebiziko garrantzia duena: biztanleriaren hazkundera.

Herri azpigaratuen eta garatuen demografia-hazkundera guztiz bestelakoa izan da aspalditik, eta II. Mundu Gerraren ondoren, handiagoz ez da egin diferentzia hori: zenbakiak diotenez, herri azpigaratuetan demografia-hazkundera itxurabea da; herri garatuetan, berriz, populazioak murrizteko joera –hazkundera negatiborako joera– nabaria du. Hartara, herri garatuetako biztanleria gutxitu eta zahartu egingo da, eta, hori dela-eta sortuko zaizkion arazoei jarkitzeko, ezinbestekoa izango dute immigratzaileen ekarria, ezingo baitute, bestela, hazkundera positiborik bermatu.

Esan beharrik ez dago, bada, populazio-hazkundera dela garapenaren arazo nagusietakoa; Hirugarren Munduko edozein herriko biztanleria-hazkundera itxuragabeak bertan behera uzten baitu edozein garapen-estrategia. Zoritxarrez, oraindik ez dute aurkitu, azpigarapen-testuinguru batean behintzat, urtero lan-merkatura heltzen diren behargin guztiak integratu dituzkeen ekonomia-sistematik. Zoritxarrez, berriro ere, gobernu askok jokatu dute presio demografikoa bigarren mailako faktorea balitz bezala, eta uste osoa jarri dute bizi-baldintzak hobetu beharko lituzkeen garapen magikoaren eraginean. Lorpenak –begien bistan daude– eskasak izan dira.

Egoera horretan –Hegoa deitzen diogun horretan– bizi denak aukera eta etorkizun falta baizik ez du sumatzen sorterrian. Nork sinets dezake bere bizi-baldintzek, urte gutxitan, zenbait garapen-estrategiaren indarrez –mirariz?–, hobera egingo dutela, eta *boom* demografikoa go-goan hartu ez duten garapen-asmoez arazo guztiak konponduko dituztela?

3.2.3. Mugen iragazkortasuna (*porositate*)

Mugak –Lehen Munduko mugez ari gara– itxita daude; baina, antza denez, ordaindu ezin dutenentzat bakarrik. Emigratzaileari mugak zeharkatzeko bi bide, bi prozedura, eskaintzen zaizkio: lehen prozedura turista-bisa legala lortzea da. Ez da gehien erabili den metodoa, baina gero eta sarriago erabiltzen da. Bisa hori lortzea ez da erraza izaten; horregatik, legalki lortzen ez duten pertsona askok erosi ohi dute. Bigarren bidea edo prozedura muga-ertzetan jarduten duten sare kriminalek, diru askoren truke eta baldintza gizagabe eta ankerretan antolatzen dituzten zeharkaldiei dagokie. Sare horiek, zer esanik ez, herri hartzaileetan dituzten gaizkide edo konplizeei esker funtzionatzen dute. Sarbidea salgai dago, beraz; eta salgai dagoela jakinda, zergatik ez erosi? Iparraldeko legeek migratzaile-jario hori geldiarazten saiatzen badira ere, ez dute –eguneroko albisteak lekuko– presio globala ezabatzea lortuko.

3.2.4. Iparraldeko herrietan lan-merkatua zabalik dago, baina...

Nahiz eta langabezia hitza gero eta sarriago esan eta entzuten dugun, Mediterraneoaren iparraldeko herrietan lan-merkatua zabalik dago oraindik. Izan ere, herrialde horietan ez da falta izaten eskulan merkea eta malgua –etorkinak, gehienbat– bilatzen duen enpresabururik. Bestalde, ezin dugu ahaztu gure gobernuak ez ikusia egiten dioten ekonomia ezkutua ere atzeritik etorritako langilez hornitu eta elikatzen dela. Halako lan-egoeran dabilen etorkinak, noski, ezin dio muzinik egin ezein lanposturi, zeren kolokakoa edota klandestinoak izanik ere, lana izateak babesten baitu herri hartzailetik egotz lezakeen balizko agindu batetik. Behin lanposturen bat lortuta, errazago erdietsiko ditu kanpotarrak herri hartzailean bizitzeko eskubidea eta agiriak, *paperak*, alegia. Paper horiek –araupetze ofiziala– eskuratzeko itxaropena guztiz erreala da, beraz; eta itxaropen horrek bultzatuta, edozeri eutsi ohi dio geratzeko asmo argia duen etorkin orok.



Ceuta, 2005. Mugako hesian harrapatutako gizona.

Baina immigrazio-hartzaile diren herrietako jendeak etorkinei buruz duen iritzia edo pertzepzioa gero eta negatiboagoa da, eta, ondorioz, etorkinen aurkako arrazakeria zabaldu da azken urteotan. Alta, zorionez, herrialde hartzaile horietan arrazakeriaren biktimekiko elkartasuna hedatzeko ahaleginak egiten dituzten erakundeak ere sortzen dira. Horretaz gain, sindikatuek ere langile immigranteen egoera erregulatzeko borondatea erakusten dute lan-indarraren prezioa gehiegi merkatu ez dadin, eta beharginek herri garatuetan lortutako eskubideak hondatu ez daitezen; bai eta, nola ez, langile etorkinak babesteko ere. Eta gobernuek –hipokrisia zer den agerian utziz– uko egin ohi diote migratzaile-jarioak epe luzean antolatzeari, eta ezer gutxi egiten dute enplegatzaile klandestinoen aurka. Noizbehinka, hala ere, gure agintariek, sen onak edo akuilatuta, atzerritik etorritako beharginak araupetzeari ekiten diote. Espainiako gobernua 2005ean abiarazi zuen erregularizazio masiboa dugu horren adibide garbia. Araupetze masibo horiek, dena dela, batzuek uste dutenaz bestera, ez dute emigratzeko gogoia baretzen, baizik eta piztu eta areagotu egiten dute.

3.2.5. Ekonomiaren mundializazioa

Ekonomiaren mundializazioak, ezinbestean, populazio-egituren mundializazioa dakar berekin. Baina ezinbestean gertatu behar horrek ez du esan nahi iparraldeko herriek atzerritar-populazioak aitzakiarik gabe onartzen dituztenik. Aitzitik, immigranteen etorrera ugaria denean, autoktono askok bere bizimodua, kultura, eta abar hondatu edo galduko ote diren kezka adierazten dute eskuarki. Hori dela-eta, beharrezko neurri guztiak hartzen dituzte herri hartzaileek biztanleriaren barne-oreka bermatzeko asmoz, hau da gehiegizko immigrazioa saihesteko asmoz. Europaren kasuan, adibidez, kezka horren isla dira Schengen-go hitzarmenean¹ sinatutako akordioak.

Biztanle autoktonoek, baina, ez dituzte etorri berri guztiak errefusatzeko. Duela 40 urte gertatzen zen moduan, gaur egun ere iparraldeko herriek baliagarriak diren etorkinak bakarrik jaso nahi dituzte, lan-merkatuak dituen beharrei erantzuten dietenak soilik. Jarrera horren adierazgarri garbia dugu ia Europa osoan abian dagoen immigrazio-kuoten filosofia berria. Dena dela, orain –eta hau da ezaugarri historiko berria– eskaria lan-eskaintza baino handiagoa da. Hortixek dator, noski, immigrazioari ezarritako mugaketa, dagoeneko Frantzia praktika orokorra dena: behargin nazionalak lehentasuna –etnikoa, askotan– du lan-sektore gehienetan.

Bestalde, funtsean merkataritza baizik ez den ekonomia-politika europarrak ez du inolako elkartasunik adierazten erronka globalen aurrean, pobreziaren, ekonomiaren ezegonkortasunaren eta abarren aurrean. Eta jarrera horrek honelako iritzia pentsamenduak sortzen ditu hegoaldeko agintariengan: «Zuok, ipar-mendebaldarrok gure merkatuak konkistatu dituzue, ez diguzue gure eskulana erabiltzeko enpresa edo nekazaritza-ustiapenak sortzeko baliabiderik eman; orain, konpon zaitezte gure langabetuekin».

¹ Schengeneko Hitzarmena Europar Batasunaren eraikuntza-bidean egindako pausorik garrantzitsuenetarikoa dugu. Honako estatu hauek sinatu dute hitzarmena –batzuek 1985ean, eta besteek geroago–: Alemania, Frantzia, Belgika, Herbehereak, Italia, Luxenburgo, Suitza, Espainia, Grezia, Portugal, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Malta, Eslovenia, Hungaria, Estonia, Letonia eta Lituania. Itunak gorabehera handiko bi helburu ditu: pertsonen joan-etorritako trabak (herri sinatzaileen arteko aduanak) ezabatzea, batetik; eta estatu kideen arteko segurtasun- eta barne-politikak koordinatzea, bestetik (kanpo-mugetan baldintza berberak ezarriz, bereziki). Erresuma Batuak eta Irlandak Schengenetik kanpo geratzea erabaki zutenenez, pasaporte beharrezkoa da bertara sartzeko.


Eta atzerriratze dagoenak, honela pentsatzen du: «Gure agintariek ezin badute irtenbiderik aurkitu, zergatik ez bilatu zortea –bizimodua– *beste aldean?*»

Emigratzeko arrazioen artean, badago bat gure sen onak argitzen duena: migratzeak eskubidea izan beharko luke, eta dagoeneko eskubidetzat jotzen dute migratzeko asmotan dauden guztiek. Horiek ez dute ala berek eraiki duten munduko ondasunez gozatzeko eskubidea?

Nola justifika dezakegu iparrekook Hegotik datozkigun pertsonen zirkulazioa oztopatu eta eragozte geure kapital, kultura-ondasun (informazioa, pelikulak, musika, moda, jaki, liburua, joko...) eta merkatu-gose asegaitzarentzat zirkulazio librea eskatzen dugun bitartean?

Azkenik, esan dezagun Hegoak, lehen bezala, lehengaiak esportatzen jarraitzen badu ere, Iparrera doazen kapitalen esportatzaile –esportazioa edo ihesa ote?– ere bilakatu dela. Horren adierazgarri dira, esaterako, herri txirotu anitz itotzen dituen kanpo-zorra² kitatu beharra, eta hegoalde pobretuko elite finantzarioek iparraldean egiten dituzten legezko eta legez kanpoko inbertsioak. Aipatutako arazook (kanpo-zorra eta kapital-ihesa) erabat zapuzten dituzte herri horiek pobreziatik ateratzeko eta garatzeko egindako ahalegin guztiak.

Aurrera jarraitu baino lehen, honez gero zenbaitetan aipatu dugun globalizazioa ulertzeko, komeni litzateke nahas-mahas erabili ditugun zenbait kontu argitzea. Horri ekiteko, has gaitezen definizio batekin: globalizazioa mundu mailan gertatzen ari den prozesua da, egun komunikatzeko eta garraiatzeko dagoen erraztasunak ekarritako merkatu arteko bultzatzen duena eta eta kulturen eta gizartearen arteko hurbiltzea berekin dakarrena.



² Kanpo-zorra: herri batek beste herriri edo nazioarteko finantza-erakundeei (Munduko Bankua, kasu) eskatutako maileguz dagokiena.

Ekonomiaren ikuspuntutik, merkataritzaren liberalizazioa aipatu ohi dugu globalizazioari buruz hitz egiten dugunean. Globalizazio ekonomikoa industria bateko kideen arteko harremanen estutzea da. Kide horiek mundu osoan sakabanaturik egon daitezke. Munduko Moneta Funttsaren iritiz, globalizazioa «herrien arteko interdependentzia ekonomikoa da, non, mugaz gaindi, merkantziak eta zerbitzuak gero eta gehiago trukutzen diren, kapitala aske jariatzen den, eta teknologia gero eta azkarrago zabaltzen den.» Kapitalismoaren zabaltzea da, beraz, globalizazioa; herri garatuetatik garapen-prozesuan dauden herrietara zabaltzea, hain zuzen ere. Honako definizio hau eman duenik ere badago: «Globalizazioa prozesu nagusiki ekonomikoa da, ekonomia nazionalak mundu-merkatu kapitalista bakar batean gero eta gehiago integratzean datzana.»

Produktzio moduak eta kapital-mugimenduak mundu mailako bihurtu dira. Hori dela-eta, estatuetakoko gobernuak beren eragina eta eskumena galtzen hasi dira; baita, horrekin batera, ekonomiaren eremuan zuten nazio-subiranotasuna ere. Horren harira, gizarte zibilean hainbat mugimendu eta erakunde sortuz joan dira globalizazioak dakartzan kalteei aurre egiteko. Globalizazioaren Aurkako Mugimenduak, Altermundialista izenez ere ezagutzen dugunak, irmoki eta ozen salatzen du egun bizi dugun globalizazioa kapitalismo basatiaren zabalkuntza besterik ez dela. Altermundialista horien ustez, ekonomia lehenetsi dugu/dute gizakia –gizakiaren ongizatea– gutxietsita, eta, horrela, globalizazioaren bitartez, nekez konpondu litezke aberatsen eta pobreen arteko aldeak.

Globalizazioak hartu duen bidea –nahiz bestelakorik ere har zezakeen– arras neoliberala da; hau da, beste hitzez, gaur egungo kapitalismo basatiarekin bat datorren bidea hartu du. Globalizatzeko bide edo era hori halako bikoiztasuna ezaugarri duen prozesu batean gauzatzen da: barneratze-/kanporatze-prozesua. Barneratze-prozesu batek merkatu batzuk elkartu eta bere barruan atxikitzen ditu hamaika abantaila eta mozkin ateratzeko. Barneratze, elkartze, interes-bateratze edo dena delakoak, jakina, alde batera uzten ditu hainbat kontinente, herri, talde eta pertsona, historiaren bide-bazterrean geratzeko arriskua dutenak. Horra hor kanporatze-prozesuaren emaitza ezkutaezina. Globalizazioa gauzatzeko era horrek Iparra/Hegoa dikotomia indartzen du herrien arteko ezberdintasunak muturreraino eramanda: milaka milioi pertsona pobrezia gorrian bizirautea kondenatzen ditu, eta, bidenabar, ingurumena hondatu arte ustiatzen du, kupidarik gabe.

Afrika dugu, zalantzarik gabe, globalizazioak aldean dakarren kanporatze horrek kaltetutakoen eredurik garbiena: kontinenteak 700 milioi biztanletik gora dituen arren, bere parte-hartzea mundu mailako merkataritzan % 1 besterik ez da, eta zuzeneko inbertsioaren % 0,4 jasotzen du soilik. Eta –zilegi bekigu esapidea– *azak ontzeko*, Afrika da gaur egun kanpo-zorren ondorio gaiztoak gehien nozitzen, pairatzen eta sufritzen dituen lurraldea.

3.2.6. Lan-merkatuaren gutxitzea hegoaldeko herrietan

Emigratzaileak igortzen dituzten herrietako lan-merkatua esportaziora bideratu eta emana dago erabat, eta horrek lan gutxi –lanpostu gutxi– sortzen du Hegoa izendatu dugun munduaren zati horretan. Gainera, aurreko atalean aipatu dugun kapitalen esportazioak –iparralderanzko *ihesak?*– eta ustelkeria bidez eskuratutako dirua mendebaldeko banketxeetan egoteak ez diote mesederik egiten garapen-bidean dauden herrietako lan-merkatua zabaltzeari; aitzitik, kontrako efektua lortzen du.

Are eta gehiago oraindik: garapen-bidean dauden herri horiek Nazioarteko Moneta Funtsa (NMF) eta Munduko Bankua (MB) erakundeek 80ko hamarkadan diktatu edo agindutako arau eta egokitzapen-politikara makurtu behar izan zuten. Politika haren helburuak argiak ziren oso: aurrekontu-defizita gutxitzea eta ordainketa-balantza orekatzea. Hori erdiesteko, estatuek zenbait erabaki tekniko hartu, eta gizarte-gastuei zegozkien diru-laguntzak kendu behar izan zituzten. Horrek guztiak, zoritxarrez, gizartean izan zuen ondorioa ez zen soilki teknikoa izan, hain marka mila langilek kale gorrian bukatu baitzuten.

Aurreko guztia gutxi izanik, herrialde garatuetan kokatutako enpresa askoren desegiteak eta hegoaldera lekuz aldatzeak (*deslokalizazioak*) ondorio gaiztoak izan ditu: soldata oso baxuen praktika arrunt bilakatu eta zabaldu da hegoaldeko herri askotan, eta horrek pobrezia areagotu eta hedatzeaz bestalde, langile-ihesa eragin du herrialde garatuetarantz. Bistakoa da, beraz, lan-merkatu berri horiek lanpostu gutxi sortzen dutela eta ez dutela inondik ere pobrezia arintzen.

3.2.7. Globalizazio kulturala

Mundializazio horretan, menperatzailea den Iparrak asmatutako objektu, helburu, errito, eta munduari buruzko ikuskerara egokitzen da Hegoa. Globalizazio *kulturalaren* ondorioetako bat da hegoaldeko erdiko klaseko jendeak mendebaldeko *way of life* eskuratu nahi izatea. Ikerketa gutxi egin dira gai horri buruz, baina jakin badakigu mendebaldarren kontsumo-ohiturak bereganatzeko aukera izateak –telebista leku guztietara heltzen da– emigratzera bultzatu dituela haien sorterrietan bizitzeko lain duten gizarte-geruzak. Antza denez, gizarte-integrazioa posible denean ere, badira beste faktore batzuk jatorri-lekua edo sorterria uztera *gonbidatzen* dutenak: bizi-kalitatea hobetzeko esperantza, lortutako prestakuntza teknikoa edo akademikoak eman behar lukeen bizi-mailaz gozatzeko aukerarik ez izatea...). Erdiko klaseko jende hori, duela 40 urte garapen- eta demokratizazio-ereduen bizkarrezurra izan zena, atzerakada handia nozitzen ari da bere maila sozial eta ekonomikoan.

3.2.8. Katastrofe handiak

Gauza jakina da gure planetan badirela hondamendi naturalak (lurrikarak, uholdeak, zikloiak, izurriteak...) gertatzeko arrisku handia duten lekuak. Ondotxo dakigu ere hondamendien ondoren biztanleek toki seguruagoetara alde egin –emigratu– ohi dutela, eta halaxe gertatu da historiako aro guztietan. Dena den, arriskuak arrisku populazioa izugarri hazi denez, leku horiek landu, hiritartu eta sobera jendeztatu behar izan dituzte. Hain daude jendeztatuta, ezen, gaur egun, katastrofea jazotzen den orotan migrazio-mugimendu itzelak sortzen baitira.

3.2.9. Politika-arazoen eragindako migrazioak

Zenbait herritan dagoen politika-ezegonkortasunak eta horrekin zerikusia duten bestelako gatazka larriek jende ugari behartu edo derrigortzen dute bizilekutik alde egitera, ihes egitera, alegia. Iheslari politikoak dira pertsona horiek, errefuxiatuak; eta beste askok bezala, gure Ipar eta Mendebalde garatu eta demokratikoetara etortzen dira babes bila. Zorigaitzez, hedabideak albistez gainezkatzen dizkiguten gerra zibilek eta herrialdeen arteko gerrek eragiten dituzte lekuak eta errefuxiatu ugari horiek.

Etiketak ipintzea nahitaezko bihurtu zaigun garai honetan ia logikotzat hartzen dugu iheslariak sailkatu eta bereiztea, ez baitira bat errefuxiatua eta lekualdatua. Aurrera segitu aurretik, egin dezagun, bada, bakoitzaren deskribapen argigarria:

- Errefuxiatua: arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko arrazoizko beldurra duen pertsona bat da, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesa lortu ezin duena edo goraxeago azaldutako beldurrarengatik lortu nahi ez duena.
- Lekualdatua: bere herrialdetik atera gabe –nazioarteko mugarik zeharkatu gabe– bizilekutik alde egin beharrean dagoen pertsona. Barne-iheslaria ere esaten zaie, eta mugetatik hara itzuritakoen modu bertsuan bizitzera derrigortuta daude. Pertsona batek, arrazoi politikoengatik, erlijioagatik edo arrazagatik mehatxupean sentitzen delako lekualdatzen bada, errefuxiatu-estatutua eska dezake. Gaur egun, 25 miloi migratzaile inguruk osatzen dute barne-iheslarien populazioa, eta, gehienbat, honako herriotan ditugu sakanbanatuta: Kolonbian (2 milioi), Iraken (1,2 milioi), Sudanen (850.000 mila), Somalian (400.000 mila), Azerbaijanen (560.000) mila inguru, Sri Lankan (324.000 mila)...



Sebrenicatik ihesean: 1991ean, Jugoslaviaren desintegrazioak Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europan izan den errefuxiatu-krisi handiena sortu zuen. Irudian, 1995ean Sebrenicatik ihes egin zuten 40.000 pertsonetako batzuk agertzen dira. Zortea izan zuten, 7000 pertsona hil egin zituztelako NBek babesten zuen eskualdean. 1999ko martxoan, NATOk airez egindako erasoen ondoren, 800.000 errefuxiatuk Kosovotik ihes egin zuten edo handik kanporatu zituzten.

Gaur egun, 9.200.000 pertsona errefuxiatu daude munduan, eta 25 milioi dira lekualdatuak. Estatuaren arteko gerrak gutxitu badira ere, barne-gatazka armatuak nabarmen ugartu dira kontinente guztietan, eta, hala, iheslari kopuruak nekez egin dezake behera. Haatik, iparraldeko gobernuek gero eta politika murriztaileagoaz jokatzeko dutenez etorkinekiko, gero eta zailagoa dute ihes egindakoek herrialde seguru batera joatea. Horregatik gutxitu dira asilo-eskubidea izanik ere hori eskatzen dutenen kopurua, herri hartzaileek, lehengo abegiaren ordean, eragozpen, traba eta hesiz beteriko legeak eskaintzen dizkietelako. Asilo-eskubidea baliatu ezin horrek lekualdatuen kopurua handiagotzea ekarri du ondorioz. Afrika da, nola ez, erasandako herrialdeetan erasandakoa: 13 milioi baino gehiago dira lekualdatuta bizirautean duten pertsonak. Ia erdiak (6 milioi) Sudanen daude.

Iheslari gehienak –kasualitatea ote?– Hegoko herrietakoak dira: Afrikako Lakuetakoko eskualdekoak, Afrikako Adarrekoak, Boli Kostakoak, Kongoko Errepublikakoak. Afrikakoak ez ezik, XX. mendearen amaieran gerrak jasandako hainbat herrietakoak ere baditugu: Balkanetakoak, Ekialde Hurbilekoak, Jugoslavia ohiko herrietakoak, Kurdistan, Afganistan, Iran, Irak eta abarrekoak.



XX. mendearen hasieran, milaka judutar Palestinara *itzultz*en hasi ziren, Antzinatean beren aberria izan omen zen herrialdera. Baina Palestinan arabiarrek bizi ziren. Judutarrak lurra erosten hasi ziren, Erresuma Batuen laguntzaz (bertan britainiarrek botere koloniala baitzuten). 1947. urtean lurraldeak banatu egin ziren lehen aldiz –Nazio Batuen Erakundearen ebazpenez– bi komunitate horiek (judutarrak eta palestinarrak) bereizteko. 1948. urtean Israel Estatua sortu zuten. Erdibiketak ez zuen inor nahikotu, eta bi komunitateen arteko erasoak izan ziren. 1967. urtean Israelek lurralde palestinarrak okupatu zituen. Geroztik aurrera, gerra eta heriotza etengabeak dira bertan.

«Lotsaren horma». 2007ko uztaileko argazkia. Sionismoak palestinarrak kontrolpean edukitzeko altxatu dituen horma (700 km izango ditu) eta hesi elektrifikatuek palestinarren bizitza gero eta zailago bihurtzen dute. Ez dugu ahaztu behar 4 milioi errefuxiatu palestinarrak bere jaioterritik kanpo bizi direla (Jordanian, Sirian eta Libanoko errefuxiatu- eremuetan), sionismoaren indarkeria eta sarraskietatik ihes egiteko.



Palestinako umeak *hormaren* ondoan.

Lege murriztaileen eragozpenak gorabehera, Europak jasotzen du gaur egun babes-eskaera gehien: NBGMeren (Nazio Batuen Goi Mandataria Iheslarietzat, ACNUR gaztelaniaz) arabera, 2005ean 670.000 babes-eskaera inguru aurkeztu zituzten 149 herrialdetan; haietariko 374.000 Europan. Baina, pentsa genezakeenaz bestera, ez dira Ipar eta Mendebal aberatsetako herriak errefuxiatu gehien jasotzen duten herrialdeak, hegoaldekoak baizik. Datuek diotenez, hegoaldekoek munduan dauden iheslarien % 83 hartzen dituzte. Egoera zertan den argitzeko, adibide esanguratsu eta aski ezagunaren berri emango dugu: 1987an, Somalian 137 errefuxiatu zeuden mila biztanleko; Suitzan, ordea, mila biztanleko 5 errefuxiatu baino ez zeukaten/daukate.

Etiketak ipintzea afizio eta ofizio dutenek honakoaz ere ohartarazi digute: errefuxiatu eta lekualdatuez gain, badira beste pertsona batzuk arazo politikoek eragindako egoera tamalgarri-tamalgarrian bizi direnak: aberrigabeak. Aberrigabeari ez inork ez inongo estatuak ez dio herri-tartasunik aitortzen, jaiotakoan herritartasunik esleitu ez ziotelako –erregistro falta, agirien akats, eta abarregatik–, legeak zenbait biztanle edo etnia zehatz batzuk diskriminatzen ditue-

lako, edo naziotasuna galdu ondoren besterik eskuratu ezin izan duelako. Beste alde batetik, gogora dezagun estatuen desegiteak ere –bat baino gehiago ikusiak gara azken berrogei urteotan– pertsona ugari herritartasunik gabe, aberririk gabe, utz dezaketela. Halaber, emantzipazio edo indepentzia-prozesu eta gerrek gizatalde handiak utzi ohi dituzte ezlekuan bezala, beren izateari ez dagokion herritartasun baten jabe, alegia. Sovietar Batasuna desegin eta bere eraginpeko herrietako erregimen politikoa aldatu izanak horrelako kasu askotxo eragin zituen Europan eta Erdialdeko Asian. Horiek, zentzu hertsian, ez dira errefuxiatu aberrigabeak; baina zer dira, bada? Etiketa ipini beharrean ditugu.

3.2.10. Gaitasunagatiko migrazioak

Langile kualifikatuak edo *gaitasundunak* (gaituak, adituak, teknikariak, ingeniariak, langile espezializatuak, askotariko lizentziadunak...) esportatzen dituzten herrialdeetatik alde egiten dutenek beste migratzaile-talde bat osatzen dute. Planetako herrialde garatuetan (Ipar Amerika, Europa, Japonia, Hong Kong, Australia eta Zeelanda Berria, esaterako) mugitzen diren behargin adituen migrazio-mugimendua da hau; aditu-jarioa esaten diote askok, garun-ihesa beste askok. Migrazio hori europarrei, amerikarrei eta japoniarrei egokitu zaie orain arte, baina gero eta gehiago dira Asiatik eta Ekialde Hurbiletik irtendako ingeniari, mediku eta informatikariak.

Goi mailako prestakuntza duten migratzaile horiek eskuratu beharreko *lehengai* bihurtu dira etengabeko garapena xede duten herri askorentzat. Haiei begira, hain zuzen ere, sortu omen zuten *green card* dokumentua, gaur egun Europar Batasunak *txartel urdina* izenez abian jarri duena. Aurrerago (3.4. atalean) aztertuko ditugu aditu-jario edo ihesak (brain drain) immigraanteen sorterrian eragiten dituen ondorioak.

Emigrazioaren bultzagile diren arrazoi zerrenda amaitzeko, *push-pull* (bultza/tira) izeneko indarrak aipatu behar ditugu, horiek dira-eta migrazioaren maila eta izaera erabakitzen dutenak. *Push* indarrak presioa egiten duten eta jendea alde egitera bultzatzen duten sorterriko faktoreak dira: hondamendi naturalak, jazarpena, pobrezia, lanik eza, gerrak... *Pull* indarrak, aldiz, jendea beste herri batean bizitzera erakartzen dutenak dira: lansari hobea, gizarte-laguntzak, gizarte-statusa hobetzeko aukera, babes politikoa, adierazpen-askatasuna, eta abar. Pobrezia da *push* eragile nagusia, eta lanpostua aurkitzeko itzaropena, berriz, *Pull* faktore indartsuena da.

3.3. NORA EMIGRATU?

Gaur egun, beren jatorriko herrialdetik kanpo dauden emigrante kopurua 200 milioi ingurukoa dela jotzen dute. Planetako biztanleria osoarekin (6.733.188.593 biztanle, 2008ko urriaren 28an) alderatuta, ehunekoa txiki samarra da (% 3, gutxi gora-behera), baina hartzaile diren herrialdeentzat gehiegizkoa da, zeren gizarte guztiek, nahiz eta aberatsak izan, arazoak izaten baitituzte etorkin guztiak gizarteratzeko.

Azaldu dugunez, AEB eta Europako herri aberatsak izaten dira maizenik lekualdatu beharrean dauden pertsonen helmuga, baina ekonomiaren mundializazioak migrazio-gune berriak sortu ditu: Indonesia, Malasia, Singapur, Japonia, Australia eta Ekialde Hurbileko herriak. Azken zonalde horretako Saudi Arabia eta Kuwait, adibidez, erakargarri bilakatu dira India,

Bangladesh, Pakistan, Thailandia, Txina eta Filipinetatik alde egindako langile ugarentzat. Dirudienez, Asiatik abiatutako jario hori AEBra eta Kanadara ere zabalduz doa poliki baina etengabe.

Kontuak kontu, 2.000. urteaz geroztik, Europar Batasuna Ipar Amerikari nagusitzen ari zaio jasotako etorkin kopuruari dagokionez. Gainera, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua ez dira jadanik migratzaileen helmuga gogokoenak, baizik eta berriki hartzaile bihurtu diren Hego Europako zenbait herri: Italia, Grezia, eta, batez ere, Espainia. Aipatzekoa da, bestalde, Mediterraneo ertzeko herri horietan aitortu gabeko immigranteen kopurua legalizatuen kopuruaren bikoitza edo hirukoitza dela. Aldaketa betean murgilduta dago, beraz, Hego Europako eskualde hori.

AEBk milioi erdi immigrante iraunkor onartzen ditu urtero, errefuxiatuak, iheslariak, kontuan hartu gabe. Horietatik % 50 Asiatik dator, % 40 Amerikar kontinentetik, eta gainerako % 10 Europatik. Hau da Iparramerikako estrategia berezia: enfasi handia jartzen du profesional liberalak eta prestakuntza duten langileak erakartzeko. 1990ko Immigrazio Legeak (Immigration act) esplizituki esaten du erlazio positibo eta zuzena dagoela AEBko hazkunde ekonomikoaren eta mota horretako immigrante berrien artean (gaur egungo egoeran, krisialdi ekonomikoa dela-eta, ez dakigu berdin pentsatzen jarraituko duten). Legez kontrako immigrazioari dagokionez, AEBn 2 edo 3,5 milioi etorkin klandestino dituztela uste dute estatubatuarrek, eta, arduradunen datuei kasu eginez gero, urtero 200.000 ezkutuko sarrera zenbatzera iritsi dira. Horietariko % 80-% 90 kontinentetik bertatik datoz; Mexikotik, bereziki.

Hala ere, migrazio gehienak (% 80tik gora) herrialde pobreen barruan gertatzen dira: Afrikan, Asian eta Latinoamerikan. Egia da Afrika zuriak (Magreb eta Egipto), esaterako, Europa eta AEBra esportatzen dituela langileak, baina Afrika beltzak barne-lekualdaketak jasaten ditu etengabe, nahiz eta Europaranzko migrazio-jario garrantzitsua ere baduen: Benin, Kamerun, Botswana, eta Swazilandiak, adibidez, Kongo, Boli Kosta, Gabon eta Hegoafrikara bideratzen dituzte bere emigratzaileak. Kontinente horretan estatuak ez dituzte, oraingoz behintzat, mugak kontrolatzeko baliabiderik, ez eta etorkinei behar bezalako harrera ziurtatzeko ere.

Migrazio mugimendu mota guztiak, epe luzera, odoluste demografiko bihurtzen dira atzerriratutakoen jatorriko herriarentzat eta zama jasanezin hartzaileentzat. Aurreko paragrafoan deskribatu ditugun kasuetan (Afrikako barne-lekualdaketak), gainera, migrazio horiek zigor latz bilakatu ohi dira herrialde hartzaileak pobreak direnean.

Munduan diren biztanle-mugimendu orori erreparatuta, esan dezakegu emigratzaile guztiek joera berbera erakusten dutela: herri hartzailean betiko geratzea –hasierako nahia jatorriko herrira itzultzea den arren–. Joera hori areagotu egiten da zenbait herrialde hartzailetan eskaintzen dieten familia berrelkartzeko eskubidea dela-eta. Azkenaldian, hala ere, estatu hartzaileek etorkinekiko arauak zorrozteko asmotan dabilenez (migrazioari *hesia* jarri nahi diote), bertan betiko geratzeko intentzioa indartu da etorkinengan. Horrek, zoritxarrez, haien sorterriarekiko erlazioen haustura dakar ezinbestean.

Ezin bukatu ataltxo hau iragaitzazko herrialdeak zer diren azaldu gabe. Funtsean, migrazio-biderik erabilienean erdian eta muga politikoaren –eta, kasu batzuetan, harresi artifizialen– ondoan dauden eskualdeak dira. Herri pobretuak izan ohi dira (Maroko, Tunisia, Mexiko, eta abar), lurralde aberatsekin mugak partekatzen dituztenak eta, nolabait esateko, migratzaileak hasitako bidaiaren azken etapatzat har ditzakegunak.

Mexiko Hego Ameriketatik AEBra doan bidearen ardatzean dago; Maroko, aldiz, Schengen gunerantz emigratu nahi duten afrikarren bideetako batean dago –bestea Tunisia da–. Pasabide diren neurri berean, Iparreko herri aberatsek migratze-jarioa oztopatzeko *lehen babeslerroa* –ia-ia tankan itxiriko konpartimendu– bihurtu dituzte iragaitzazko lurraldeak. Bitartean, milaka eta milaka afrikarrek eta Amerika erdialdeko biztanlek egoera negargarrian bizirauten dute Marokon, Tunisian eta Mexikon, noizbait European edo Estatu Batuetan sartuko diren esperantzarekin. Esan gabe doa, bestalde, iragaitzazko herrialde horiek itzelezko migrazio-presioa pairatzen dutela.

3.3.1. Atzerritarrak Espainian eta Euskal Herrian

Europar Batasunean, 80ko hamarraldiaz geroztik, Espainiar estatua da immigranteen hartzaile nagusietako bat. Andaluziara (Almeria aldera, batik bat) eta Mediterraneoko kostaldera (Kataluniara, nagusiki) etorkin anitz etorri da; batez ere, Marokotik eta gaztelaniaz mintzo diren lurraldeetatik (Ekuador, Colombia, Peru, Argentina,...), baina baita Espainiarekin inongo harreman kolonialik izan ez duten herrialdeetatik ere: Saharaz hegoaldeko Afrika, Txina, Errumania, Errusia, Hungaria, Portugal eta abarretik.

46 milioi biztanle daude erroldatuta Espainian, eta horietariko % 11 immigranteak dira. Bestalde, estatistika-datuek diotenez, 2.146.000 etorkin daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, eta afiliatuen % 11 osatzen dute.

Espainiara etorritako pertsona horiek –gehienak– beren sorterrietan bizitzeko aukerarik ez duten gazteak dira, autoktonoek onartzen ez dituzten egoera eta lanpostuetan jarduteko prest daudenak. Besteak beste, honako langintza hauetan aritzen dira, eskuarki: nekazaritzan (Almerian, Murtzian, Lleidan, Bartzelonan...), eraikuntzan (Madrilen, Bartzelonan, Euskal Herrian, Galizian...), meatzaritzan (Asturiasen, Leonen, Palentzian...), ostalaritzan eta pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzen (azken horretan emakumeek lan egin ohi dute).

Immigrante horietako asko legalki sartu ezin direnez, bizia arriskuan jartzeko prest egoten dira Espainiara heltzeko. Eguneroko albiste bilakatu da, tamalez, Gibraltarko itsasartean edo Kanariar uharteetara bidean ito edo galdu –desagertu– egin direnen berria. Gurutze Gorriaren arabera, 2006ko lehen hiru hilekoan, 1000 lagun baino gehiago ito ziren Kanarietara heldu nahian, eta, urtero, 100.000 klandestino dira Gibraltarko itsasarte zeharkatzen dutenak. Itsasarte horretako ertzen artean 14 km besterik ez badaude ere, azken bost urteotan uretan itorriko lau mila pertsonaren gorpuak aurkitu dituzte.

Bide arriskugarri horietatik Espainian sartzea lortzen duten afrikar bakanek egoera penagarrian –bazterkeriak berezkoa duena– bizitzera kondenatuta daude, eta, lanik topatzekotan, legez kanpoko jarduerak edo autoktonoek gaitzesten dituzten zereginak (prostituzioa, beharrik neketsu eta arriskutsuenak, kontraturik gabeko esklabu-lan antzekoak...) onartu behar izaten dituzte. Beraz, Iberiar penintsulako sasiparadisura iristeko, bizia jokoan jarri ondoren, etorkin askok babesik ez gorri-gorrian bizirauten dute; eta babesgabetasun hori askoz ere nabarmenagoa eta larriagoa izaten da etorkinak bakarrik iritsitako emakumeak edo adingabeak direnean.

Aurrekoa gutxi izanik, AEBek eta Europar Batasunak azken urteotan indarrean jarri dituzten immigrazio-politika zorrotzek mugak blindatu-edo dituzte segurtasun nazionalaren ai-

tzakian. Hori dela-eta, atzerriratu nahi dutenen kalterako, gorantz doan immigrazio-merkatu ezkutua sortu da iragaitzeko migrazio-guneetan. Ez dira gutxi sorlekutik alde egiteko, merkatu ezkutua hori kudeatzen duten mafiekin zorrak egin eta, horren ondorioz, arrisku handiko egoera sozial eta fisikoak jasan behar dituzten pertsonak. Hala migrazio klandestinoak bihurtu zaigu miseria eta etsipena esplotatzen dituen negozio arrakastatsu.

Espainia hizpide dugula, ezin aipatu barik utzi 60ko hamarraldian bertaratzen hasi zen inmigrante-jarioa: Europako herri aberatsetako erretirodunak ziren, Espainiako bizimodu merkeak eta giro eguzkitsuak erakarrira zetozenak. Alemania, Frantzia, Britainia Handia eta Suediatik etorri, eta Mediterraneoko kostaldean, Baleareetan eta Kanarietan kokatzen ziren. Immigratzaile berriak laster hasi ziren osasun- eta bestelako zerbitzu gehiago eskatzen. «Turista finko» haien inguruan –haien zerbitzurako, hobeki esanda– askotariko negozioak sortuz joan ziren: higiezin-enpresak, etxebizitzaren zaintza eta garbiketa, ostalaritza-enpresak, mirabe-zerbitzuak...).

Gaur egun, alabaina, ingelesak, frantsesak, alemaniarrek eta herri aberatsetatik Espainiaratzen diren gehienak ez dira jadanik «turista finko» haietarikoak, baizik eta bertan bizi eta lan egiten duten atzerritar komunitarioak (Europar Batasuneko herrietatik etortakoak) dira. Heziketa eta prestakuntza-maila altua izan ohi dute, maiz bertakoena gainditzen duena. Hasieran, behargin komunitario berri haiek kostaldean eta uharteetan jarduten zuten soilik europar erretirodunenentzako zerbitzu-lanetan; egun, baina, estatu espainoleko herrialde ugarietan aurkitzen ditugu askotariko lanpostuetan. Zenbat diren jakitea, hala ere, ez da erraza, haietako asko erroldan agertzen ez direlako. Egia esateko, erroldatu beharrik ere ez dute, zeren, Europar Batasuneko langileak diren aldetik, askatasun osoz joan eta etor baitaitezke –lanari dagokionez ere, jakina–. Deigarria da, benetan, Batasuneko langile horiek zeinen ongi hartuak diren Espainian, nahiz eta, daukaten lanbide-prestakuntza handiagatik, behargin autoktonoentzat oso kontuan hartzeko lehiakideak izan. Gauzak horrela, ez gaitu batere harritu behar atzerritar horiek gozatzen duten integrazio-maila handiak; batez ere, «beste etorkinek» (urrunagokoek eta kolokako lanpostu kaskarrak dituztenek) «gozatzen» dutenari alde-ratuz gero.

Ofizialki Euskadi izena ematen zaion Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egoera ezagutzeko, Immigrazioaren Euskal Behatokiak aurkeztutako datu kuantitatibo batzuk aurreratu ditugu: EAEn 116.650 etorkin daude erroldaturik, eta populazioaren % 5,4 osatzen dute. Horietako 54.500ek Gizarte Segurantzaren kotizatzen dute. Izan ere, orotara 76.000 langile daukaten arren, 21.500ek ezkutuko ekonomian dihardute, eta, beraz, ezin dute zentimorik bat ere kotizatu.

Azkeneko datuak aztertuta (2008ko irailekoak), atzerriko beharginen kopuruari dagokionez, Euskadik izan du gorakadarik handiena Espainiako autonomia-erkidego guztietan: iaz baino 54.061 atzerritar gehiago daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta (aurreko urtean baino % 15,20 gehiago). Espainia mailan, ordea, batez besteko gorakada % 2,87koa baino ez da izan.

Gizarte Segurantzako afiliatuen harira, esan behar dugu EAEk baduela Espainia osoko afiliatuen % 2,59 –Kataluniak, konparazio baterako, % 23 du–. Afiliatuen gorakadarik handiena ostalaritzak izan duen arren, enpresetarako zerbitzuetan, osasun-jardueretan, eta gizarte-zerbitzuetan ere aintzat hartzeko hazkuntza gertatu da. Gurean jazo denaz bestera, gero eta zabal-tzenago ari den langabeziaren ondorioz, behera egin du afiliatuen kopuruak Kanarietan, Valentzian eta Murtzian.

Bertoko eta atzerriko biztanleriaren bilakaera, EAEn. Atzeritarren ehunekoak, EAEn eta Espainian. 2000-2008

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EAEko biztanleak	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.648	2.141.860	2.155.546
Bertoko biztanleak	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.336	2.038.896
Biztanle atzeritarrak	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650
EAEko atzeritarren %	1,01	1,31	1,82	2,33	2,8	3,43	4,0	4,6	5,4
Espainiako atzeritarren %	2,28	3,33	4,73	6,24	7,02	8,46	9,2	9,9	11,3

Iturria: EINKo datuak.

Atzeritarrak EAEn, jatorriaren arabera sailkatuak. 2008 urtea

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
EB 15	17.025	14,6	3.258	14,3	7.843	21,9	5.924	10,2
EB 25	1.169	1,0	304	1,3	523	1,5	324	0,6
EB 27	13.764	11,8	1.829	8,0	4.074	11,4	7.861	13,5
Gainerako Europa	3.401	2,9	886	3,9	1.498	4,2	1.017	1,7
Europa, guztira	35.359	30,3	6.277	27,6	13.938	38,9	15.144	26,1
Magreb	13.765	11,8	4.976	21,9	3.809	10,6	4.890	8,6
Gainerako Afrika	6.324	5,4	1.206	5,3	939	2,6	4.179	7,2
Afrika, guztira	20.098	17,2	6.182	27,2	4.748	13,3	9.159	15,8
AEB eta Kanada	802	0,7	96	0,4	284	0,8	422	0,7
Latinoamerika	54.506	46,7	8.929	39,3	15.046	42,0	30.531	52,5
Amerika, guztira	55.308	47,4	9.025	39,7	15.330	42,8	30.953	53,2
Txina	3.258	2,8	574	2,5	670	1,9	2.014	3,5
Gainerako Asia	2.531	2,2	670	2,9	1.053	2,9	808	1,4
Asia, guztira	5.789	5,0	1.244	5,5	1.723	4,8	2.822	4,9
Ozeania	95	0,1	2	0,0	45	0,1	48	0,1
Apatridak	10	0,0	4	0,0	2	0,0	4	0,0
Guztira	116.650	100,0	22.734	100,0	35.786	100,0	58.130	100,0

Iturria: EINKo datuak.

Atzerritarren afiliazioa EAEn, sektorearen eta nazionalitatearen arabera. 2008ko Iraileko batez-bestekoa

Jatorriak	Orokorra	Autonomoak	Nekazaritza	Itsasoa	Etxea	Guztira
<i>Europar Batasuna</i>						
Portugal	5.009	929	531	113	55	6.637
Errumania	2.914	1.891	213	9	316	5.343
Frantzia	1.100	411	2	4	5	1.522
Italia	850	212	0	0	2	1.064
Alemania	480	148	2	1	0	631
Polonia	462	28	3	0	4	497
Erresuma Batua	426	200	1	2	2	630
Bulgaria	365	65	17	0	31	479
Irlanda	101	48	0	0	0	149
Herbeherak	97	32	1	0	0	130
Belgika	83	28	0	0	0	112
Lituania	55	24	0	1	1	80
Eslovakia	46	8	0	0	1	55
Txekiar Errepublika	37	4	2	0	0	43
Austria	36	7	0	0	0	42
Suedia	34	12	0	0	0	46
Grezia	32	3	0	0	0	36
Letonia	31	6	0	0	1	38
Hungaria	24	8	0	0	0	32
Danimarka	14	6	0	0	0	20
Eslovenia	11	2	1	0	0	14
Finlandia	10	1	0	0	0	11
Estonia	2	0	0	0	0	2
Txipre	1	0	0	0	0	1
Europar Batasuna guztira	12.219	4.072	773	131	419	17.614
<i>Europar Batasunetik kanpo</i>						
Kolonbia	4.964	354	30	4	1.538	6.890
Ekvador	3.236	226	269	4	1.024	4.759
Maroko	3.553	323	247	17	187	4.327
Bolivia	1.426	63	56	1	911	2.458
Peru	1.571	60	16	53	347	2.047
Txina	1.082	652	1	0	144	
Argentina	980	171	2	0	73	1.226
Brasil	895	94	2	0	158	1.149
Aljeria	812	51	37	1	27	927
Kuba	690	79	4	4	96	873
Gainontzeko herriak	7.386	770	230	194	1.333	9.913
Europar Batasunetik kanpo guztira	26.595	2.843	894	278	5.838	36.446
Atzerritar kopurua	38.814	6.915	1.667	409	6.257	54.061

Iturria: Gizarte Segurantzaren datuak.

3.4. MIGRAZIOEN ONDORIOAK

Aztergai darabiltzagun giza lekualdaketek –migrazioek, alegia– emigranteen jatorriko eskualdeetako gizarte-egitura aldatu ohi dute; baita, logikoki, herri hartzaileetako gizarte-egitura ere. Erraz antzeman dezakegunez eta lerrootan azalduko dugunez, ondorioak demografikoak ez ezik, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak izaten dira.

3.4.1. Migratzaileen jatorriko herrietan (herri igorleetan) nabari diren ondorioak

Hegotik Iparrera doazen migrazio-mugimenduek hegoaldeko populazio-egitura globalean itzelezko eragina dute: nekazariak, langileak, erdiko klasekoak, zientzialariak eta teknika-riak joan egiten dira. Beste modu batera esanda, Hegoak ez du bakarrik esportatzen bere lan-merkatuan behar ez duena, baizik eta beharrezkoa edo premiazkoa duena ere bai. Herrialde pobretuek beste edozein herrik bezala, eskulan gaitua behar dute, baina prestakuntza dutenek nahiago izaten dute herrialde aberatsetara alde egin bizimodua hobetzeko eta duten gaitasunari zor zaion statusaz gozatzeko. Aurreko puntuetan ikusi dugunez, alde –ihes?– egite horren ondorioak latz-latzak dira bai jatorriko herrialdeen ekonomiarako, bai bertako gobernu-sistemen demokratizaziorako, zeren eta jende-geruza hori beren herrietako demokratizazio-bektore eta eragile nagusia izaten baita.

Ekonomiari eta balizko prozesu demokratizataileei egindako kalteak ez dira populazio-aldaketek hegoaldeko herriei egiten dizkieten bakarrak. Ez dezagun ahantz migratzen duen jende gehiena gaztea dela, eta horrek, noski, biztanleriaren zahartzea ekar lezakeela epe ertainean, nahiz eta, bide batez, langabeziaren presioa doi bat arinduko den.

Bestalde, «gaitasundunen» –kualifikatuen– edo, hobeki esanda, adituen ihesa arazo larrirenetarikoa bat dela nabarmentzeko, hona hemen bi datu adierazgarri: 1951tik 1974ra bitartean, Ghanak lizentziadunen % 30-40 galdu zuen Britainia Handiaren eta Nigeriaren onurarako; atzerrian formatzeagatik gastuak ordaindu arren, Gambiak bere diplomatuen % 50 galtzen du urtero. Belaunaldi oso bat galtzen dute, beraz, herri igorleek. Eta jende gaituaren ihes horrek herri igorleei dakarkien giza baliabideen galera handia izanik ere, ez da txikiagoa aditu horien prestakuntzan xahututako diruarena, nekez berreskuratu ahalko baitute aurretik egindako inbertsioa.

Den-dena txarra ezin izan denez –pentsa lezake norbaitek–, ondorio onik ere izan lezake Hegotik Iparrerako migrazioak. Emigranteek bidaltzen duten dirua guztiz onuragarria da beren sorterriko ekonomia suspertzeko: kanpoko dibisak ekarri, eta familia handiak mantentzen ditu. Bai; egia biribila da hori; baina funts-transferentzia horiek ez dira aski herri igorleak dituen ekonomia-arazoak konpontzeko. Denbora joan ahala, gainera, etorkina herri hartzailean integratzen denean, diru-transferentzia horiek eteten dira. Hortik aurrera, etorkinaren helburua ez baita izaten etxekoei dibisa-transferentziarik egitea, baizik eta etxekoak berak herri hartzailera ekartzea. Horrenbestez, epe luzean, bederen, hegoaldeko herriak galduan irteten dira berriro ere.

Esanak esan, ezin ukatuzkoa da emigratzaileek bidalitako diru-transferentziek osatzen dutela herri askoren BPGaren (Barne Produktu Gordina) zatirik handiena. Marokon, adibidez, BPGaren % 8 izateaz gain, diru hori herrialdeak dituen irabazien kanpo-iturri nagusia da –turismoagatik lortutako etekinak gainditzen ditu jadanik–.

Marokorentzat bezala, beste herri askorentzat ere berebiziko garrantzia dute emigranteek egindako diru-transferentziek; hainbesteraingoa, non, zalantzarik gabe, esan baitezakegu nazioarteko migrazioak eragiten duela –mundu mailan– aberastasuna birbanatzen duen mugimendurik inportanteena.

3.4.2. Herri hartzaileetan nabari diren ondorioak

Iparraldeko herriak kexu badira ere, ezin ezkutatzeko onura atera diezaiokete immigrazioari. Batetik, biztanle berri horiek oreka demografikoa bermatzeko atal ezin baliotsuagoak dira, gazte-jendearen urritasuna arintzen baitute –etorkinek berek eta herri hartzailean jaiotzen zaizkien seme-alabek bertako populazioa gaztetzen dute–. Bestetik, immigrantea eskulan merke eta malgua da, eta, gainera, herri hartzaileak ez du ezertxo ere ordaindu haren prestakuntzazatik.

Badakigu, gaur eguneko erretiro-adina edo gizarte-laguntzen mailari eusteko arazoak egongo direla herri hartzaileetan, eta jakin ere badakigu arazo horiek gazte eta prestatu samar datozkigun immigranteen ekarpen demografikoari esker konpon daitezkeela. Ez dugu ahaztu behar Europar Batasuneko emakume bakoitzak 1,4 seme-alaba dituela, batez beste. Emankortasun-tasa baxu horri lotzen zaio, ezinbestean, gure herri aberatsetan aspaldi sumatzen ari garen zahartze etengabea: 2050.ean, biztanleen % 47 erretiro-adinetik gorakoak izango dira, eta 59 urte baino gazteagoen kopurua, berriz, % 11 gutxituko da. Hortaz, kanpoko langileak etorri ezean, 50 urte barru, Europan bi pertsona aktibo egongo dira ez-aktibo bakoitzeko.

NBEren (Nazio Batuen Erakundea) 1999ko txostenak agerian uzten ditu etorkizuneko gizarte-babesa eta erretiro-sistema astintzen dituzten zifra kezagarriak. Gaurko batez besteko egoera mantentzeko, Europar Batasunean 4-5 langile aktibo behar dira erretirodun bakoitzeko. Horrela segituko badugu, hemendik 2025era 123 milioi immigrante beharko ditugu. Herri pobretuetan, aldiz, NBEaren kalkuluek ziotenez, 700 milioi gazte helduko ziren lan-merkatura 1990. urtetik 2010. urtera bitartean; hau da, 1990ean herri garatuetako populazio aktiboaren zenbatekoa baino gehiago.

Gauzak hala, herri batzuen lehiakortasun maila eta gizarte-eredua oso kaltetuta para daitezke. Frantziak, esaterako, egungo egoerari eusteko, 23 milioi etorkin beharko ditu gaurtik 2.025. urtera arte –gobernuak, hala ere, bakarrik 325.000 pertsonaren sarrera aurreikusten du–. Espainiak, bestalde, 12 milioi beharko lituzke 2050. urtera arte, nahiz eta gobernuak 30.000 baino onartuko ez dituen. Alemanian, bukatzeko, 44 milioi immigrante beharko diren arren, gobernuak 5,2 milioi baino ez ditu aurreikusten.

Aurreko horiek, baina, aurreikuspenak besterik ez dira, eta populazioaren historiak askotan ezustekoak ematen ditu. Zenbaki soil horiek ezin dute inola ere aurrerantzean zer gertatuko den ziurtatu; hala ere, zenbait galdera ekartzen digute gogora: nola moldatuko da erretiro-sistema? Luzatu beharko dugu bizitza aktiboa? Pentsio-funtzen erabilera orokortuko da? Gizarte Segurantzarako kotizazioek gora egingo dute? Edo, immigrazioa jo beharko dugu? Nolakoa izango da etorkizun hurbileko familia-politika?...

Aurreikusita dauden aldaketa horien aurrean erreakzionatu gabe gera gintezke, noski, baina horrek epe ertainean ekarriko lizkigukeen ondorioak ez lirakeke batere samurrak izango. Beraz, iragarritako problemei sor eta gor egin beharrean, hobe genuke egoera berrietara egoki-

tzeko prestatzen hastea. Errealistak izanda, demagogia baztertu beharko genuke, eta gutxieneko elkartasuna erakutsi beharko genieke etorri eta etorriko zaizkigun guztiei. Esan gabe doa herri hartzaileek aurrez aurre duten erronkarik handiena autoktono eta aloktonoen bizikidetzarako estrategia baketsuak aurkitzea dela.

3.4.3. Atzerriko langileen egoera arautzeko prozesua

Europar Batasuneko 27 estatuetako ministroek Immigrazio eta Asilorako Europako Ituna (IAEI) sinatu zuten 2008ko irailaren 25ean, Bruselan. Urriaren 15 eta 16 bitartean egindako goi bileran, EBko gobernuburuek Frantziako presidente Nicolas Sarkozy-k bultzatutako immigrazio-politikari baiezkoko formala eman zioten. Horri kasu eginda, paperik gabeko etorkinen aurkako neurriak zorrotzago eta Europako lan-merkatuaren arabera immigrazioa sustatzea izango du helburu EBk. Itunaren eginkizunik behinena immigrazio-eta asilo-politiken arauak bateratzea da. Bateratze-saiakera horren emaitza oso eztabaidagarria da: Europari buruhausteak eragiten dizkion immigrazioari atak itxi, eta etorkin kualifikatuei atak parez-pare zabaltzea.

Legezko immigrazioa sustatzeari dagokionez, Bruselak zera lortu nahi du: EBk bere biztanleekin bete ezin dituen lanpostuetan jardun lezaketen atzerriko beharginei bidea erraztea; batik bat, langile falta dagoen arloetan gaitasun eta prestakuntza handia frogatzen dutenei. Etorrin kualifikatu horiei *txartel urdina* emango die Europar Batasunak. Txartel horrek EBko mugen barruko edozein herrialdetan lan egiteko aukera emateaz gainera, bere senideekin batera etortzeko eskubidea ematen dio immigratzaileari. Gobernuburuek adostu dute gutxieneko 33.000 euroko soldata garbia ematea Europara lanera etortzen diren *txarteldunei*. Horretarako, baina, prestakuntza maila altua, eta titulazio egokia (hiru urteko unibertsitate-ikasketei dagokiena) izan beharko dute.

Kontu horretan *txarteldunek* irudikatzen dute txanponaren aurkia; paperik gabeko etorkin ez kualifikatuek, berriz, txanpon beraren ifrentzua, zeren eta *27ek* sinatutako itunean *papergabeak* etxeratzeko eta kanporatzeko neurriak (derrigor bete beharrekoak) bateratu baitituzte.

Immigrazio-politika komunerako araudiak paperik gabeko etorkinak erregularizatzeko aukera guztiak baztertzen ez dituen arren, dezente gogortzen du lehendik ere sobera gogorra zen politika. Aurrerantzean, agintariak banaka-banaka aztertu eta balioetsiko dituzte herri hartzailean bizitzeko baimen-eskaerak; alegia, ez da berriro egingo 2005ean Espainiako gobernuak egindakoaren antzeko erregularizazio masiborik.

Bestalde, hizpide dugun itun hartan (IAEI), EBko arduradunek *papergabeen* etxeratzearauak xedatu zituzten. Halaxe, hitzartutako zuzentarau baten arabera, hamazortzi hilabeteko atxiloaldia ezarriko diote legeak aurreikusitako baldintzak bete gabe Europara iristen den etorkinari. Zuzentarau berak dioenez, kanporatze-agindua jaso ostean, 7 eta 30 egun bitarteko epea izango du *papergabeak* Europatik alde egiteko. Epe horretan bere kabuz alde egiten ez badu, 6 eta 18 hilabete arteko kartzelaldia ezarriko diote –gehienez– etorkinari.

Frantziako presidentea denetik immigrazio-politika gogortu izana leporatu diote hainbatetik Nicolas Sarkozyri. Bera karguan zela, Frantziako Legebiltzarrak 2006ko uztailean onartutako legeak nabarmen estutu zituen etorkinen senitarteak Frantzian bizi ahal izateko baldintzak. Halaber, frantziar naziotasuna duen pertsona baten eta hura ez duen beste baten arteko ezkontzak ere mugatzeko neurriak jarri zituen abian Sarkozyren gobernuak. Orobat, aurreko eraba-

kiak nonbait gutxi iruditu, eta Frantzian (asilo-herri eredugarri historikoan) hamar urtez bizi-tzeagatik *paperak* lortzeko aukera automatikoki ematen zuen legea ere indargabetu zuten.

Europar Batasunean lotsagabe zabaltzen ari diren neurri murriztale horien aurrean, Latinoamerikako herrialdeek beren herritarrekin hainbat salbuespen egin ditzaten eskatu dute. Ildo horretatik, Latinoamerikako Parlamentuko presidente Jorge Pizarro txiletarra honela mintzatu da: «Ez dugu bereiztea eskatzen; bai, ordea, Europa eta Latinoamerika artean hitzartu diren akordioak betetzea». Lerrootan zenbait aldiz aipatu dugun itunak garatze-bidean diren herrietan «aditu-ihesa» eragin lezakeela uste du Jorge Pizarro jaunak. Frantziako Immigrazio-ministro Brice Hortefeuxek, aldiz, ez du uste txartel urdinaren kontuak herri pobretuetako gaitasun handieneko langileen emigrazio masiboa eragingo duenik, ezta garapen-bidean dauden herrialdeak behargin kualifikaturik gabe geldituko direnik ere. Eta –Hortefeuxeren hitzak dira– sor litezleen kezkak uxatzeko asmoz, Europar Batasunak herrialde horien garapena sustatzeko lankidetzaz-egitarauak bideratuko ditu.

Asilo-eskubideari dagokionez, EBko 27 herrietako ministroek politika komuna garatu eta gauzatu nahi dute. Hain zuzen ere, asilo-eskaerak kudeatu eta bideratzeko bulego bat irekitzea hitzartu dute Bruselan. Honakoak izango dira bulegoaren zereginak: EBko estatu guztiek informazioa partekatu eta beren arteko lankidetzaz bideratzea. Beste alde batetik, immigrazio-arauak zorrotzu eta bateratzen dituen egitasmoaren arabera, Batasuneko kanpo-mugetan kontrola es-tuagotuko duten neurriak hartuko dituzte. Hala, luze gabe, immigratzailearen sartu-irteerak erregistratzeko sistema elektronikoa bat jarriko dute abian: bisa biometrikoa.

Espainiar estatura etorrira, bai mintzagai darabilgun prozesua (atzerriko langileen egoera arautzekoa), bai eta Espainiako gorteek jarritako Atzerritarren Legea ere salatu ditu Euskal Herriko ELA sindikatuak, bere ustez, etorkinak eskubiderik gabeko pertsona bihurtzen dituzte-lako. Hori argudiatzeko, ondoko arrazoi hauek mahaigaineratzen dituzte sindikatuko eledunek: legeak ez ditu giza eskubideak errespetatzen; diskriminatzen ditu etorkinak lan- eta gizarte-ar-loetan; xenofobia eta arrazista da; migrazioen ikuspegi motza eta okerra du oinarrian, ez baitu aintzat hartzen daukan alderdi soziala; agiririk gabe dauden atzerritarren egoera «normaltzeari» zirkin egiten dio; interes ekonomikoak jendartearen premia errealean gainetik jartzen ditu...

Celestino Corbachok, Espainiako Lan- eta Immigrazio-ministroak baieztatu zuen, orain asko ez dela, 2009an immigrantei sorlekuan egingo zaizkien kontratazioen kopurua zerora hurbilduko dela. Adierazpen –*irristada*– horrek zalaparta mediatiko, politiko, ekonomiko, eta sozial handia sortu du. Ministroak nabarmen erakutsi zuen ez zituela argi sistema kapitalistaren joko-arauak. Itxura denez, «ahaztu» egin zitzaion sistema horren funtsa ahalik eta lan-indarrik merkeena lortzea dela; hots, kosturik txikieneko beharginak edukitzea. Soziologoa edo ekonomialaria ez denak ere badaki atzerritarrei ezarritako lege murriztaileek handiagotzen dutela etorkinak kolokako lanean jarduteko probabilitatea, eta lan-baldintzak zenbat eta prekarioagoak izan, orduan eta soldata txikiagoa jasotzen duela langileak. Horrela (lanpostu eta sari ziztrinak galtzeko beldurrez) diharduen beharginak bidegabekeriari jarki eta erantzuteko gaitasuna galdu ohi du, isilik egotea komeni zaiola uste baitu, askotan. Erantzuteko –salatzeko– gaitasun hori galtzeak edo ahultzeak –edo ezin erabiltzeak– etekin gero eta handiagoak ekartzen dizkiete dudazko administrazio-egoera duten etorkinez baliatzen diren enpresariei, eskrupulurik gabeko enpresariei, alegia.

Enpresaburu horiexek poztu eta lasaitzeko, Corbacho ministro espainolak, lehentxe aipatu dugun *irristada* nolabait zuzenduta, esan zien behar beste lan-indar merke izango dutela beti,

haien mozkinetan eraginik txikiena ere sumatu ez dezaten. Adierazpen horiek lagungarri ditugu ondoko datuek deskribatzen duten egoera sozio-ekonomikoa azaltzeko: EBekoak ez diren baina espainiar estatuan bizi diren hamar atzerritarretik seik besterik ez dute bizitzeko baimen iraunkorrik, eta 400.000 langilek baino gehiagok ez dute ez bizitzeko ez lan egiteko baimenik. Hori nahikoa ez eta –jakinarazi du Corbachok– Atzerritarren Legearen aginduz, gurasoak ekarri ahal izateko, edozein immigrantek bost urte eman beharko ditu Espainian, lehen eskatzen zioten urtebeteko egonaldi araupetuaren aldean. Ministroak dioenez, neurria erabat ulertzekoa da, askoz zentzuzkoagoa baita gurasoak ekartzea etorkinak egoitza iraunkorra duenean –Lehengo araua, antza, ez zen batere zentzuzkoa–.

IAEI deritzana batetik, eta Atzerritarren Legea bestetik, irristadaz irristada, Espainiako gobernuak borondatezko itzulera-plana atondu du orain sobran omen ditugun etorkinak beren jatorriko herrietara bueltatu daitezten. Ministro Kontseiluak onartutako plan horren arabera, itzultzeko prest dagoen immigranteak langabeziagatik saria kobratuko du (% 40 alde egin aurretik, eta beste %60a sorterrian dagoenean), eta ezingo da Espainiara bihurtu 3 urte pasatu arte. Etorkinek, baina, ez dute plana ontzat hartu, batere komeni ez zaielako; immigranteen % 83 Lan- eta Immigrazio-ministroak egindako eskaintzaren aurka azaldu da inkestetan. Corbacho jaunak aurreikusten zuenez, 2007ko udazkenean milioi bat atzerritarrek onartuko zuten sorterrira itzultzeko eskaintza, baina errealitateak krudelki jokatu zuen ministroaren iragarmenarekin: 87.000 baizik ez zuten onartu *udazkeneko eskaintza* hura.

Zenbaki hotzak, deskribapenak, azalpenak eta iritziak gorabehera, deigarriena da Europa zibilizatuko herritarrok eskubide-urraketa eskandalagarri horien aurrean hartzen dugun jarrera: harritzeko moduko axolagabekeria –kasurik onenean–, edo onespenik ankerrena –aitortu nahi genukeen baino usuago–. Orain urte batzuk, nekez imajina genezakeen giza eskubideak hain nabarmen urratzen dituzten legeak abian jarriko genituela. Duela gutxi, lege, zuzentarau, asmo, eta proposamen horiek eskuin muturreko ideologoei baino ez genizkien entzuten; azkenaldian, ordea, eskuin muturreko diskurtsu hori –batez ere, immigrazioaren auzia eztabaidagai delarik– Europar Batasuneko estatu gehienetako legeriek jasotzen dute, gobernuen ildo edo kolore politikoa edozein dela ere.

Europarrok gure oroimen sorra esnaturik –berpizturik?–, gogoratu behar genuke emigrante eta etorkin izan garela beti historian zehar, sorterritik alde egin beharrean egon garela nahi baino gehiagotan gosea berdintzeko, edo intolerantziatik ihes egiteko, edo askatasun-egarria asetzeko, edo jakin-minari bide egiteko, edo...Eta behin oroitzen jarrita, egokia litzateke gogoratzera oraingo Europa aberatsa ezin litekeela izan kanpotik heltzen zaion eskulan merkea ustiatu gabe. Europak, apal-apal, eskerrak eman beharko lizkieke goseak eta munduko jauntxoek antolatzen dituzten gerrek bultzatuta iristen zaizkion langileei. Haatik, etorkinei zor diegun esker onaren orde, haien aurkako ehiza eta zigorrak legeztatzen ditugu, gizalegea eta gizakien legea beti bat ez datozen seinale.

Bukatzeko, datu soil bat: iturri ofizialen arabera, etorkin bat kanporatzen dute estatu espainoletik bost minuan behin. Datua 2008ko azaroaren 27ko egunkari guztiek izan zuten albiste.

*Hitzen eragina.
Aurreiritziak*

4

Austin (Lancaster 1911-Oxford 1960) britainiar hizkuntzalari bikainak erakutsi zuenez, hitzek esateko (deskribatzeko) ez ezik, egiteko (jokatzeko) ere balio dute. Gure espirituan, gure baitan, eragiten dute hitzek –zer esanik ez, politikari, hezitzaile eta kazetarien hitzek– eta materiazko indar bilakatzerira iristen dira. Eta indar hori nola erabiltzen dugun, onuragarriak edo kaltegarriak izan litezke hitzok. Hona hemen zergatik komeni den, bada, esaten eta idazten ditugun eleen mezua zuhurki neurtzea: ongia eta gaizkia ereiteko haziak izan litezkeelako. Behin beren balio eta garrantziaz ohartuta gaudelarik, aztertzen dihardugun gaiarekin (migrazioak) zerikusi zuzena duten zenbait hitzen adierak zehazteari ekingo diogu hurrengo lerroetan.

4.1. KONTZEPTU BATZUK ARGITZEN

Arrazismoa eta xenofobia elkarrekin lotuta dauden kontzeptuak dira, eta bi-biek izendatzen dituzte arrotzaren, atzerritarraren edo beste arraza baten aurkako jokabide diskriminatzailea izatera bultzatzen gaituzten jarrerak. Baina, zehazki, zer da xenofobia? Eta arrazismoa? Eta diskriminazioa? Ikus, azter eta argi ditzagun banan-banan.

- Xenofobia: atzerritarraren eta atzerritik datorrenaren aurkako jarrera eta jokabidea da.
- Arrazismoa: gureez bestelako ezaugarri fisiko eta kulturalak dituzten pertsonetik mesfidati izatera, edota –zenbaitetan– pertsona horiek mespretxatzerira ere garamatzen jarraera edota jokabidea.
- Diskriminazioa: jendarte bateko talde sozial edo etniko bat besteengandik bereizi, baztertu eta beste taldeak baino okerrago tratatzea da. Xenofobiak eta arrazismoak eraginda, herri edo hiri batean giza talde edo erkidego oso bat –etnikoa zein erlijiosoa– gainerako herritarrengandik aparte –bakartuta– bizitzera behartzen dugunean, ghettoa izeneko auzoak sortzen dira. Ghetto hitzak Poloniako juduen auzoak ekartzen dizkigu gogora, eta, ia ohartu barik, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan jartzen gaitu. Hala ere, tamalez, antzeko kasuak izan dira Historiako eta Lurreko toki askotan. Oroit ditzagun, adibidez, Hegoafrikako *apartheida*, XX. mendearen bukaera arte iraun zuena, eta, Euskal Herrian, etorki iluneko *agot* jendeak mende eta mendeetan pairatu behar izan duten bereizkeria –norbaitek *agot* deitzea iraintzat hartzen zuten XVII.ko euskaldunek–.

Goragoko definizioak irakurrita, gutariko baten batek pentsa lezake berari ez dagozkion jarrera baztertzailerik eta irrazional horiek, baina, egia esateko, inor gutxik uka dezake bere barrenean txarresten duela gure artekoa ez dena, gure berdina ez dena, edo gutarra ez dena. Bera baino hobeak garela pentsatzen dugulako alboratzen dugu arrotza; bere gainetik gaude la uste dugulako. Edo, akaso, bera gure gainetik egon daitekeelako urruntzen dugu? Oso litekeena da.

Arrazista zeharo sinetsita dago bere erlijioa, herrialdea, hizkuntza eta kultura beste edozein jende-talderenak baino egokiagoak direla. Esan gabe doa, bestalde, erlijio gehienek uste dutela berak direla onenak eta beren jarraitzaile ez direnak okerreko bidean dabiltzala. Askok liburu sakratu direlakoek dakartena erabiltzen dute beste ororen gainetik daudela arrazoitzeko, eta baita erlijio-gerrak eta bestelako gatazkak sustatu eta eragiteko ere (gurutzaldiak, juduen holokaustoa, musulmanak hil eta erbesteratzea, zenbait erlijiotako integristek pizturiko istiluak...). Arrazismoa eta erlijioa baliatzen dituzte hainbatek jendea gorrotoaren ildoan sartzeko,

elkar ezagutzen ez duten pertsonak elkarren aurka jartzeko, beti hartu-eman baketsuan bizi izan diren giza taldeak banandu eta borroka-bidera eramateko. Hori guztia, negar egiteko modukoa ez balitz, irrigarria litzateke, zeren liburu sakraturik ezagunenek (Korana, Tora eta Biblia) arrazismoaren kontrakoak baitira, gizakien arteko bakea aldarrikatzen dute-eta.

Mehatxaturik ikusten du arrazistak bere burua, beldurra baitio bere antzik ez duen orori, eta uste du arrotzak kendu nahi dizkiola lortu dituen ondasunak: etxea, lana, kultura... Mesfidati bihurtzen da, baina ez du horretaz gogoetarik egiten; berezko senak bultzatuta balego bezala hartzen du jarrera hori. Jokabide instintiboa da mesfidantza hori, hausnartu eta arrazoitu gabeko bulkada baten antzekoa, zeinaren azpian gizakion kezka atabikoa gordetzen baita: segurtasuna. Seguru sentitu beharrak eramaten gaitu auzokoari, atzerritarrari, beldurra izatera. Eta beldur horrek eragiten dizkigu, zenbaitetan, arrotzekiko oldarkortasuna eta berak menperatu eta azpiratu nahia –jokaera bortitzak betiere–.

Aurreiritzi irrazionaletan oinarrituta dauden jokabide bortitz horiek zuritzeko asmotan, argudioak bilatu eta asmatu ohi ditu xenofoboak. Batzuetan, zientziaren atea jotzen du arrazoi bila, baina arrazakeriak ez du inongo oinarri zientifikorik, nahiz eta batzuek kontu horri eutsi dioten ezarria duten edo ezarri gura luketen diskriminazioa justifikatzeko.

Atzerritarra beste arraza batekoa dela pentsatzen du arrazistak, berearen azpitik dagoen arraza batekoa. Baina erabat oker dago: giza arraza bakarra dago, eta gizateria osoa da espezie batekoa. Animaliei dagokienez, alde handiak daude espezie batetik beste batera, eta espezie beraren barruan antzematen ditugun diferentziak handiak izaten dira; hain handiak, ezen arrazak bereizterik badagoen. Baina ezinezkoa da bereizketa hori giza espeziean, gizaki batetik bestera ez baitago gorabehera handiko alderik. Ez dago, beraz, giza arrazarik, eta ez genuke erabili beharko kontzeptu hori gizakion dibertsitateaz mintzatzeko. Egia da, halere, sarriegi baliatu garelara arraza berbaz itxurazko edo azaleko ezberdintasunak azpimarratzeko; eskolan, behintzat, zera ikasi genuen denok: giza arrazak zuria, beltza, horia, gorrixka eta malaysiarra dira. Eta, zoritxarrez, badago oraindik hori sinesten eta aldarrikatzen duenik; baita honakoa pentsatzen eta esaten duenik ere: «Gure arraza ederra eta noblea da; besteak, aldiz, itsusi eta basatiak».

Hala eta guztiz ere, aitortu behar dugu ezin ukatuzko ezberdintasunak ikusten ditugula giza taldeen artean. Baina ezberdintasunok bereizgarri soziokulturalak besterik ez dira. Giza talde bakoitzak –guztiz agerikoa da– bere ohitura eta tradizioak ditu: janzkera, erlijioa, askotariko ospakizunak, gizartea antolatzeke era, artelana eta bestelako kultura-produktuak...Dibertsitate soziokultural horiek, hain zuzen, ikusarazi behar lizkigukete ez gaudela bakarrik munduan, eta badirela beste herri batzuk gureak ez bezalakoak baina gureak bezain baliotsuak diren usadioak dituztenak.

Horretaz ohartu eta hausnartzeak lagunduko digu etorkinek ekarritako ezberdintasuna epaitzeko –epaitu beharrik egotekotan– jokabide zuhurra eraikitzen. Kulturak, hezkuntzak eta arrazoitzeak irakatsi behar digute besteak errespetatzen eta elkarrekin bizitzen. Horiek horrela, arrazismoari aurre egin nahi badiogu, ikasi/irakatsi, ulertzen saiatu eta gure grina oldarkor atabikoak gainditzen ahalegindu behar dugulakoan gaude. Inor ez baita arrazista jaiotzen, nahiz eta denok, gutxi-asko, aurreiritzi xenofoboek erasaten diguten.

Inor ez da, ez horixe, arrazista jaiotzen; arrazistak nonbait eta norbaitengandik ikasten du joera gaitzesgarri horrekin jokatzeko. Hori jakinda, esan beharrik ez dago, hezitzaileak erabakitzen du zein mezu transmititu giza dibertsitatea mintzagai duenean, bai eskolan, bai etxean. Gauza bera

esan genezake politikariek eta kazetariak hedabideetan esan eta idazten dutenaz. Bistakoa da, beraz, hezkuntzak xenofobiaren auzian duen erantzukizuna, eta baita problemaren kontra borrokatzeko eginkizunik behinena berari bete-betean dagokiola ere. Horrexegatik, aditu guztiek esan ohi dute heziketa dela arrazismo eta xenofobia orori aurre egiteko ezinbesteko abiaburua.

4.2. AURREIRITZIAK MIGRAZIOAZ ETA IMMIGRANTEEZ

4.2.1. Zer dira aurreiritziak?

Gizakiok arinegi epaitu ohi dugu bestea; ezagutu aurretik eraikitzen dugu lagun hurkoari zein kanpotar etorri berriari buruzko iritzia. Eta uste dugu alde aurretik –horra aurreiritziak– badakigula besteak zer diren, zelakoak diren, zer nahi duten eta zenbat balio duten. Inongo funtsik ez duten aurreiritzi horiek beldurra eragiten digute –gure segurtasuna kolokan ipintzen dute–, eta beldurrak arrotzarekiko mespretxua eta erasokortasuna eragiten dizkigu.

Ez dira ele hutsalak goiko lerroetan josi ditugunak; eta, horien mamiaren argigarri, hona hemen espainiarrek immigrazioari buruz dituzten aurreiritziak azaltzeko asmoz atondu dugun testua (Almeriako El Ejido eskualdean gertatutako ekonomia-aldaketa izugarria ekarriko dugu gogora, Juan Goytisolo idazle espainolak orain hamarraldi batzuk egindako bidaiari buruzko kontakizuna bitarte):

«1957ko udan, Almeriako El Ejido eskualdea zeharkatu nuen lehen aldiz. Paisaia harritsua eta lehorra zen oso, zuhaixka bakan batzuk baino ez zituen. Bide ertzean, solairu bakarreko etxe gutxi batzuk, zeramika-saltoki zenbait, bi edo hiru ostatu, karez zuritutako etxe zuloak... Autoa gelditu genuenean, bertakoek inguratu egin gintuzten, eta ea Frantzia lanik ba ote zegoen galdezka hasi zitzaizkigun. Euren izenak eta helbideak eman zizkiguten kontrato bat lortzeko itxaropenarekin: mundu zakar eta babes gabeko horretatik irten nahi zuten. Orduko Almeria estatu espainoleko *Errauskine* zen. Mespretxuzko esaldi krudel batek laburbiltzen zituen herri haren zoritxar eta akatsak: espartzua, mukiak eta bekarrak. Goitik begiratzen dutenen mihiak zorrozten ditu bestearen pobreziak».

«1961ean, beste bidaia bat egin nuen Simone de Beauvoir, Vicente Aranda, eta Nelson Algren-ekin. Ordurako, bateonbat, putzu artesiari batzuk eraiki ondoren, baratze txikiak lurpeko uraz elikatzen hasia zen (...). Hala ere, El Ejidoko bizilagun asko Europara bidean jarriak ziren dagoeneko. Parisen, Bruselan, Ginebran eta beste hiri batzuetako tren- eta autobus-geltokietan, milaka espainol –janzkera, maleta, eta gainerako puskei esker aise bereiz zitezkeen– biltzen ziren, den-denak helbide batez galdezka edo kontratu eske».

«Besoak behar zituzten Europan: neskameak, igeltseroak, prestakuntza gabeko peoiak, zerbitzariak... Horiek laster sartzen ziren garapen-prozesuan zeuden herrialde haietako lan-munduan. Hondamendi hurbilaren (Bigarren Mundu Gerrak eragindakoa) aztarnak ezabatu eta ahazteko irrikan zeuden gizarte haietan hazkundeak mugagabea zirudien, eta, horregatik –hondarretatik eraiki behar zutelako–, beso zabalik hartu ohi zituzten lanera zihoazkien espainiarrak, beste garai batean espainiar horiexen aitona-amonak eta gurasoak –emigratzaile ekonomikoak eta erbesterratu politikoak– Argentinan eta Venezuelan hartu zituzten bezala».

«1997ko abendu honetan, xenofobiak bultzatutako etorkin-ehizaldiak, justifikatu gabeko jazarpenak, bahiketaren bat eta antzeko eraso arrazistek bazterrak sutu eta jende askoren biho-

tzak zimurtu dituzte lehen hain pobrea zen eta emigratzera kondenatuta zegoen El Ejido herrian. Ez da erraz egostekoa oraindik lotsagorritzen gaituzten istilu horiek hemen gertatu direla jakitea, El Ejidon –eta bere eskualdean–, alegia; hain zuzen ere, berotegietako laborantza intensiboari esker eta isilpean atxikitako etorkinen esplotazio gupidagabeari esker, Espainiako lurralderik aberatsenetarikoa izatera iritsi den herri honetan».

Beraz, denbora gutxian igaro da El Ejido «espartzua, mukiak eta bekarrak» ezaugarri edukizetik itxuragabeko garapenaren erakusgarri izatera. Ekonomia-jauzi miragarri hori (1957ko miseriatik egungo aberastasunerainokoa) frankismoaren azken urteetan areagotu zen bereziki, eta egundoko aldaketa bizkorrak ekarri zizkion Almeriako lur puska horretako giza paisaiari zein paisaia geografikoari –sekulako aldaketak, sekulako abiadan–.

Azken lau-bost hamarralditan izandako eraldaketa hura arinegi ez ote zen gertatu galdetu du soziologo batek baino gehiagok. Izan ere, El Ejidoko bizilagunak ez zeuden batere prestatu-rik diru berri hark zekarkien status-igoera ongi asimilatzeko. Aldaketak pairatu edo gozatu egiten zituzten, besterik gabe; beste inongo gogoetarik egin gabe, noski. Inork ez zuen pentsatu herri aberats eta immigrante-hartzaile bihurtu aurretik hezkuntza-neurriak hartu behar zirenik. Inork ez zuen esan gizarte garatuen abantaila material eta teknikoek gozatzeko, biztanleek nolabaiteko prestakuntza etiko eta kultural egokiz jantzi eta hornitu behar zutenik.

Hango garapena, tamalez, ez zen izan prozesu jarraitu baten emaitza –Europako beste herrialdetan jazotakoaren antzekoa–, baizik eta salto zakar baten gisara gertatu zen. El Ejidoko landatar haiei ustekabeko bestelakotze handia etorri zitzaien bat-batean; eta, behar baino arinago, ezinbestek bestelakotu zizkien bai ordura arteko gizarte-usadioak, bai eta larre motzean hazitako jende haren mentalitatea ere.

Gizarte-usadioak eta mentalitatea aldatzeaz gain, aberastasun berriak beste herritako jendearekin zituzten hartu-emanak ere aldatu zizkien El Ejidoko bizilagunei. Almeria herri emigratzailea –igorlea– izan zen betidanik. Horregatik, berotegien *boom* izan aurretik, beste herrialdetako biztanleekin edukitako kontaktuak Almeriako mugetatik kanpo gertatu ohi ziren. Almeriar haiek ez zuten, bada, immigrazioa hartzeko ez ohiturarik, ez eskarmenturik, ez trebeziarik, ez eta erako hezkuntzarik. *Ez* gehiegitxo, beraz, negutegi distiratsuen deiak erakarrita zetozkien immigranteak behar legez, adei-legez, gizalegez hartzeko.

Eta *Ez* horiek guztiak lagun –etsai?–, zoritxarreko 1997 hartan jazo ziren El Ejidon magrebtarren aurkako erasoak, torturak, bahiketak eta bestelako gaitzakeriak. Orduz geroztik, beste toki askotan ere gertatu dira kutsu arrazistaz blaituriko antzeko istiluak, oroimen historikoa duen edozein espainiarri azala lastu eta auzo-lotsa sentiarazi behar lizkioketenak. Baina, itxura denez, zenbait herrik erraz ahazten dute pobreziatik ihes egiteko emigratzea egokitu zitzaizkionekoa, edo bere arbaso hurbilenek zituzten premiez duten oroitzapen lausoa ez da nahikoa etorkin berrien miseriaz jabetu eta elkartasun-kontzientzia pizteko.

Izan ere, bizia arriskuan jarrita, dokumentaziorik gabe eta baldintza ez-duinetan edozein espainolek errefusatuko lukeen lanpostuan aritzera heldutako magrebtar eta subsahariarren egoera negargarriak ez omen dizkigu iraganari buruzko oroitzapen sorrak birpiztu, ez errukizko sentimenduak ernatu, ezta halako estualdi gaitzetatik pasatutakoekiko sinpatia sortu ere. Aitzitik, elkartasunetik urruti dagoen jarrera erakusten dute/dugu aberats berriok: kanpoan daudelarik onesten ez ditugun mairuak eta beltzak behar-beharrezko esklabo bihurtzen ditugu berotegien barruan. Hala, herri hartzaileko biztalenengan, solidaritatearen ordez, botereak emandako

nagusitasunari darion egoismo kezkarria sortzen da soilik –El Ejidon edo New Yorke– Horri guztiari gehitzen badizkiogu Espainian antzinatek sustraitua dagoen mairuenganako gorrotoa eta herritarren isiltasun gaizkidea, etorkinen aurkako zigor-espedizioak *justifikatzen* dituen substratuaren formula lortzen dugu.

El Ejidoko paisaia fisiko eta morala –esana dugu– aldatu dira nabarmen eta erritmo bizian: errepide ertzetan, kilometro eta kilometroetan, dir-dir egiten dute berotegiek, turistentzako hotel handiek, etxebizitza bloke itzelek, banketxeek, urbanizazioek, supermerkatuek, etxe-agentziek, prostituzio klubek...Harro-harro erakusten ditu El Ejidok aberastasun eta modernitatearen azaleko zeinu guztiak: kasinoak, thailandiar saunak, aerobic-aretoak, auto garestiak...

El Ejido: zer hintzen eta non hagoen!



El Ejidoko paisaia: 14.000 hektarea hartzen dituen plastikozko itsasoa.



El Ejidoko berotegietan lan egiten duten beharginen txabolak. Ikus daitekeenez, modu jasangaitzean bizi izan dira, eta bizi dira oraindik, esplotazio-egoeran diharduten etorkinak.

4.2.2. Aurreiritziak islatzen dituzten esaera arruntak eta beste

Bestelako hitzaurrerik gabe, hona hemen askotan entzuten ditugun eguneroko adierazpen aurreiritziz beteriko batzuk, eta adierazpenok zer pentsarazten diguten:

«Beltza izan behar da gizarte-laguntza eskuratzeko». «Aizu, marokoar bati tokatu zaiio etxebizitza! Bertakook lortu ezinik eta...»

Etxebizitza eta gizarte-laguntzen kasuan, etorkinek hemengoek baino eskubide gehiago duten ustea oso zabaldua dago; batik bat, gazteen artean. Baina errealitatea honakoa da: EAEn, adibidez, immigranteen populazioaren % 8k bakarrik jasotzen du oinarrizko errenta. Etxebizitza lortzeko ere ez dute inolako abantailarik edo tratu berezirik etorkinek; lana baldin badute, eta zergak, langile guztiok bezala, ordaintzen badituzte, beste edozeinek beste aukera daukate.

«Lan egin dezatela eta integra daitezela!»

Zer esan nahi du horrek? Integratzeko ahalegina immigranteak soilik egin behar duela? Gu garela menperatzaileak, eta etorkinak moldatu behar duela gurera, edo, bestela, kanpora iraitzi behar dugula? Immigranteak belarriak makurtu eta gehiegi ez nabarmentzen saiatu behar duela? Zertaz hitz egiten dugu, orduan: integrazioaz ala gaizki ulertutako etxekotzeaz, hezteaz –*domestikazioaz*–, alegia? Hala, immigranteak uste du autokotonoari baino ahalegin gehiago –eta handiagoa– dagokiola integratzeko eta besteekin batera bizi eta gizartean molda daitekeela erakusteko; hots, onartua izateko, ahalegin berezia edo apartekoa egin behar duela pentsatzen du atzerritarrak.

Kontua da, bakarrik datorrenean, aise *integratzen* dela, ez da egoten inolako arazorik onar dezaten eta laster etxekotu dadin; baina immigranteek taldea osatzen dutenean, eta benetan diren bezala –beren ohitura, hizkuntza, jarrera, pentsaera eta abarrekin– azaltzen hasten direnean, *talka* egiten dute autoktonoarekin, edo, hobeki esanda, autoktonoaren usadio, arau, beldur eta aurreiritziekin. Hitz laburrez: etorkin batek exotismo-ukitua ematen dio gure bizitzari, baina etorkin-talde desinhibitu batek arriskuak leharzkitoke komunitateari. Ez dira gutxi, orduan, ondoko paragrafoa hasteko aukeratu dugun esaera hitzetik hortzera darabiltenak.

»Ni auzo honetakoa naiz betidanik; auzoak honelako eta honelako arauak ditu, eta zuk, etorri berri horrek, ezin dituzu aldatu. Nik ez dut nahi horrelako etorkinik»

Gehienetan, horrelako adierazpideen teiltupean ezjakintasuna bizi da. Hirietan, jakina denez, oso normala da auzokoa ez ezagutzea, edo, gehienera jota, bere izenaren berri besterik ez izatea. Badirudi, gainera, auzoko etorkinak izenik ere ez duela. Horregatik, gure ustez, berebiziko garrantzia du immigrantearekin hartu-emanak izateak –benetan ezagutzeak–, horrek nabarmen alda baitezake herri hartzailekoen jarrera. Egia da autoktonoaren aurreiritziek eragina izango dutela kontaktuetan, baina integrazioaren aldeko ekimenak bi norabidetan egin behar dira nahitaez: etorkinak, alde batetik, gogoz saiatu behar du herri hartzaileko bizimodura egokitzten (aukeratu duen herriko hizkuntza ikasi, lana bilatu, legeak ezagutu eta abar eginda); eta autoktonoak, beste aldetik, ahaleginak egin behar ditu etorkinaren integrazioa errazteko. Zorigaitzez, halere, *etxean* jokatzen duena uzkur, motel eta nagi ibili ohi da integratzeoranzko bide horretan, eginkizuna immigranteari soilik dagokiola.

Horren harira, Euskadiko Marokoar Etorkinen Elkarteko buru Khalid Amzir-ek esaten du auzoek eta auzokoek beren ezaugarriak dituztela, eta ezaugarri horiek kontuan hartuta jokatu behar duela etorkinak. Horretaz gain, auzoko beste bizilagunekin mintzatu beharra duela gomendatzen du; bai eta immigranteek eta *etxeok* proiektu komunetan elkarrekin esku hartu behar dutela ere. Hau da, dinamika bateratzaileak sustatu behar ditugu *bizimodu paraleloak* sor ez daitezen. Baina atzerriarraren gutxieneko inplikaziorik ezean, autoktono solidarioenak ere kezu izango dira. Gerta liteke, orduan, autoktono horietako batek baino gehiagok etxebizitza saldu eta auzotik alde egitea. Auzoa ghetto bihurtzeko aurreneko urratsa ote?

«Denok ditugu eskubide berberak, baina ni hemengoa naizenez...»

Botere-erlazioa aldarrikatzen du hori esaten duenak, nagusiaren eta menpekoaren arteko erlazioa, ugazabaren eta beharginaren artekoa. Hartu-eman mota bera da etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko langileak kontratatzen dituztenen eta zeregin horietan jarduten duten immigranteen artekoa. Familiarekiko ardurak eta etxetik kanpora egiten dugun lana bateragarriak izateko, etorkinak behar ditugu, baina, egunerokoan, haiek eta gu bereiz bizi gara, ez baititugu geure berdintzat hartzen. Immigrantea *onartzen-edo* dugu, bai; baina, betiere maila sozial baxuenean geratzekotan. Onartze ahul horrek –bistakoa da– nekez eramango gaitu egiazko integrazioa.

«Euskadi herri txikia da; bere iraupena arriskuan jartzen dute»

Gure identitate kulturala arriskuan jar dezaketelako, etorkinak mehatxu gisa ikustera iritsi da guk nahi baino euskal herritar gehiagok. Pentsatzen bide dute immigrazioaren fenomenoak inbadituko eta irentsiko gaituela, eta gure kultura deuseztatu eta desagerraraziko dutela kanpotarrek –maketoen eraso biziberritua?–. Ikuspegi hori, baina, ez dator bat maneiatzen ditugun datuekin. Hemen daukagun immigrante kopurua, duela zortzi urtekoa baino handiagoa bada ere, oso txikia da oraindik, eta gune zehatz batzuetan dago kontzentratuta. EAEko atzerriko immigrazio erreala, % 5,4 izan arren, askok % 11 delako irudipena dutela aitortzen dute.

60ko hamarraldian Euskal Herrian ezagutu genuen immigrazioa, estatu espainoletik etorritakoa, askoz ere inportanteagoa izan zen, bai kopuruaren aldetik, bai hartzaileon idiosinkrasian izan zuen eraginaren aldetik. Baina gaur egun jasotzen ditugun etorkinak hainbat eta hainbat jatorritakoak dira; ez dute talde kultural homogeneoa osatzen, eta, beraz, nekez jarriko dute arriskuan euskaldunon identitatea, ezta, are gutxiago, duela aspaldi gure herrialdeak erakusten zuen homogeneotasuna.

«Lana dutenak bakarrik gera daitezela, eta, gainera, horiek ez diezagutela lanik kendu!»

Lanpostu baten jabe direnak bakarrik araupetu eta onartzeko prest daudenen iritzia dago kio goiko esaerari. Hori pentsatzen dutenen artean oso zabalduta dago atzerriarrek guk nahi ez ditugun lanpostuak soilik bete beharko lituzketelako ideia. «Horrela ez digute lanik kenduko», esaten dute askok. Arrazoiz ala zer dela gabe?

Arrazoiak gorabehera, biztanle autoktonoak kostata onartzen ditu etorkinak; batzuetan, lan-kontuak medio (langabezia-tasa handia denean, batik bat), eta beste batzuetan, immigran-

teek eskubide sozialak jasotzen dituztelako (hezkuntza, osasun- eta gizarte-laguntzak, langabezia-subsidioa...). Bertoko langile askok enplegu eta konkista sozialen kontrako mehatxutzat hartzen dituzte etorkinak, premia denean denontzat egongo ez ote den zalantza egiten baitute.

Langabezia, dena dela, ez dago immigrazioari lotuta, baizik eta Iparrean nagusitu diren produktio-egituren aldaketei eta garapen-estrategia berrien gabeziari. Munduko erakunde handien (Nazioarteko Moneta Funtsa, Munduko Bankua, e.a.) strategiaren helburua edo norabidea ez dago munduaren orekari begira, baizik eta Estatu boteretsuen (G8 osatzen duten Alemania, Kanada, AEB, Frantzia, Italia, Japon, Erresuma Batua eta Errusia) nazioarteko enpresa handien aginduei eta epe laburreko interesei beha. Baina horiek hartzen dituzten aldebakarreko erabakiek pobrezia, zokoratzea, gaixotasuna eta heriotza baino ez dakarzkiete munduko hainbat herritako biztanleei. Neoliberalismoak aldean dakarren eredu horren arabera, gutxiengo batek eskuratzen ditu etekin ekonomikoak, eta etekinok herrien ongizateak baino garrantzi handiagoa dute, dudarik gabe.

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak ez dio inolako mesederik egingo mundu hobe eta zuzenagoa eraikitzearen aldeko borrokari. Mendebaldeko potentzia ekonomikoak prest eta bizkor azaldu dira bankuak (bizi dugun egoeraren erantzule nagusiak) porrotetik salbatzeko, eta, horretarako, herri-funtsetako dirutzak prezio ezin merkeagoan «injektatu» behar izan dizkiete. Erabaki eta neurri horren ondorioz, munduko herri pobretuek geratu beharko dute agindutako laguntzak jaso barik. Geure herrietan, bestalde, finantzazio-entitateak erreskatatzeko operazioak gastu sozialaren gutxitze nabarmen eta kezagarria ekarriko du, ezinbestean, ez baita huskeria erreskate horietan gobernuek xahutu dutena: banketxeei krisiaren lehen unean emandako dirutzaren % 1 nahikoa izango litzateke munduan zabal dabilen gosearen arazoa konpontzeko.



«Udalek behar duten guztia ematen diete musutruk, euren komertzioek ez dute zergarik ordaintzen, ez dute Gizarte Segurantzako ilara egiten, ez dira kartzelara joaten, ezta.... Eta, gainera, pertsonak alferrik galtzen dituzte! ... zeren ni, immigranteak etorri aurretik, ez nintzen arrazista; orain, ordea,... EUREN ERRUZ!»

Goragoko lerroetan argitu dugunez, egunotan handituz dabilkigun langabezia-tasak ez du inondik ere lotura zuzenik immigrazioarekin. Aski dugu, EAera itzulita, bertako lehendakari J.J. Ibarretxek berriki eman dituen datuoi erreparatzea: Eskulanaren zahartzea dela eta, EAEk 90.000 etorkin gehiago beharko ditu datozen zazpi urteetan, gure ekonomiaren lehiakortasuna eta erretiroaren sistema mantentzeko, zeren, gaurtik 2.015. urtera arte, 250.000 langile inguruk hartuko baitute erretiroa EAEn, eta hutsik utziko dituzten lanpostuetatik 160.000 bakarrik bete ahalko baitira langile autoktonoekin. Beraz –kalkulua erraza da–, 90.000 immigrante, gu-

txienez, beharko ditugu datozen zazpi urteotan eraikuntzan, ostalaritzan, etxe-zerbitzuan eta adineko pertsonen eta elbarrien zaintzan lan egiteko. Horrela, bikoiztu da Gizarte Segurantzak dituen afiliatuen kantitatea.

«Immigranteak heldu ahala, delituek egin dute gora»

Hedabide batzuek, behar ez dela, gaizkileen ezaugarriez gainera ematen dute beren jatorri, erlijio edota etniaren berri; hau da, nahi gabe –edo nahita– delitua eta delitugilearen etorkia lotzen, nahasten dituzte. Horrela, autoktonoek egindako gaiztakeriak, deitoragarriak izanik ere, arinagoak dirudite kanpotarrek egindakoen aldean, azken horiek halako *erruduntasun-plus* bat edukiko balute bezala. Hortik «immigrantea = delinkuentea» berdintza cuasi-matematikora iristeko, hutsa baino ez dago. Horra hor nola sortzen eta zabaltzen diren irratiek, telebistek eta prentsa idatziak sahietsi behar lituzketen estereotipoak; hain zuzen ere, xenofobia eta arrazismoa elikatzen dituzten estereotipoak direlako.

Baina, Euskal Herriari dagokionez behintzat, Herrizaingo-sailburu Javier Balzak adierazitakoaren arabera, Euskadin delinkuentziak duela 11 urte zeukan maila berean jarraitzen du: 2007an, 1000 biztanleko 56,75 delitu egon ziren; 1997an kopuru bertsua izan genuen erkidegoan.

«Ez dute integratu nahi!»

Euskal Autonomia Erkidegoko jendea, oro har, magrebtar etorkiko biztanleei muga handiak ezartzearen oso aldeko agertzen da. Erkidegoko biztanle askok ez ditu oso gogoko Ipar Afrikako alde horretatik etorritakoak, eta, egiten diren galdeketetan, magrebtarrak izaten dira beti populazio autoktonoak gutxien edo okerren balioetsitako atzerritarrak.

Gutxiespen edo gaitzespen-jarrera hori zuritzeko, integratzeko gogo eta ahaleginik eza leporatu ohi diegu iparrafrikarrei; alegia, integratu nahi ez dutela egozten diegu. Eta halaxe da hainbat kasutan; beste hainbatetan halaxe ez den bezala, diosku Khalid Amzir-ek, Euskadiko Marokoar Etorkinen Elkarteko buruak. Amzirrek bi jarrera kontrajarri sumatzen ditu bere herrikideengan. Alde batetik, badira honela pentsatzen duten etorkinak: «Marokoarra naiz, neure erlijioa dut, musulmana naiz, neure kultura dut. Hona etorri naiz lan egitera, dirua irabazi eta sorterrira itzultzeko. Sekula ez naiz hemengoa izango. Seme-alabak eskolara eramango ditut, bai; eta saiatuko naiz, ahal bada, arabieraz irakats diezaieten. Ez dut beste hizkuntzarik ikasi nahi. Niregana ez etorri, beraz, integrazioaren matrakarekin, zure matrakarekin! Naizen bezalakoa naiz, eta, faborez, utzi nazazue bakean! Errespetatu nazazue!» Horrela mintzatzen dira zaharrak, sasoi batean etorritakoak, eta baita zenbait gazte ere. Beste batzuek, aldiz, jende eskolatuak, kultu samarrak direnek, edota nolabaiteko jendetasunaren jabe direnek ez diote uko egiten beren nortasunari, baina ezta hemengo bizimodu eta usadioei ere. Hortaz, denetarik daukagu magrebtarren artean; ezin dugu estereotipoaren amua irentsi eta denak txarretsi, ez bailitzateke inola ere bidezkoa izango.

«Emakume immigranteek prostituzioan jarduten dute»

Mespretxua eta destaina baizik ez darie hitz horiei. Ezin dugu ukatu; egia da badaudela emakumeak esplotatzen dituzten sare antolatutako edo mafiak. Badakigu, gainera, emakume horie-

tako asko prostituzio-sareetan harrapatuta geratzen direla proxenetek hemen bizi eta lan egiteko dokumentazioa eskuratuko dietelakoan. Ez dira gutxi ere sorterrian bertan proxenetismo mafiek engainatuta etorri zaizkigunak, ustez aurretiaz hitzartutako lanposturen bat betetzera zetozela. Gaizkileak al dira egoera horretan dauden andrazkoak? Gu, behintzat, ezezkoan gaude. Aitzitik, biktimak direla pentsatzen dugu, eta beraz, gure elkartasuna merezi eta behar dutela deritzagu.

«Etorkinek hezkuntza-maila apala dute»

Oso aurreiritzi zabaldua da, baina, egia esateko, etorkin askoren eta bertokoen hezkuntza-maila antz-antzekoa da. Tamalez, baina, immigranteei eskaintzen dizkiegun lanpostuetarako (autoktonook nahi ez ditugunak), ez da pretakuntza handirik behar. Hori dela eta, ez da arraroa goi-ikasketak dituzten etorkinak zaintzaile, garbitzaile edo mirabe-lanak egiten ikustea.

«Etorkinek gure hezkuntza-sistemaren kalitateari kalte egiten diote»

Azken urteotan, hainbat arrazoi tarteko, herri-ikastetxeetako geletan dauden arazoak eta arazoon konplexutasuna nabarmen handitu dira immigrazioaren ondorioz. Ez dago ukatzerik. Eta ez dago ukatzerik problemen areagotze edo gaiztotze horrek Eskola Publikoari bereziki erasaten diola, zeren EAEko etorkinen % 80 sare publikoan eskolatua baitago. Eta zifrak eza-gututa, argi dago hori ez dela ez bidezkoa, ez eta egokia ere. Ikasle immigrante gehienek ez, baizik eta denek egon beharko lukete zentro publikoetan; baina ikastetxe pribatuak ere badaudenez, ez zaigu zuzena iruditzen arazoaren fardela sare publikoaren bizkar uztea. Bestalde, ez dugu uste integrazioari mesede egiten dionik ikasle etorkinak sare bakar batean bildu eta metatzea; alegia, eskola-ghettoak sortzea.

Mesede barik, kalte egiten dio integrazioari eskola-kontuetan EAEn darabilgun politikak. Ikasle etorkinen banaketa ez da batere orekatua. Aitzitik, salatzeke moduko kontzentrazioa dago sare, zentro eta hezkuntza-eredu zehatzetan: eskola-adina duten 5.400 etorkinek 70 zentrotan ikasten dute; hau da, zentro guztien % 9an soilik daude ikasle immigranteak. Eta hori gutxi balitz bezala, ikastetxe horiek baliabide eskasak dituztenak izan ohi dira, hirietako gune marjinaletakoak, gainera.

Arazoa konpontzeko –arduradun politiko eta hezkuntzako esku dago– erabil genezakeen irtenbidea honako hau da: bana ditzagun ikasle problematikoak –etorkinak izan ala ez– diru publikoaz hornitu eta elikatzen diren ikastetxe guztien artean, sare publikoaren zein sare pribatukoaren artean. Hala, bide batez, banaketa zuzenago eta orekatuagoari esker, Eskola Publikoan diharduten profesionalen karga arintzea lortuko dugu; bai eta ghettoak sortzeko arriskua txikiagotu edo –zergatik ez?– sahietsi.

Banaketa bidezkorik egin ezean, ikasle etorkinak errefusatzeko orain arte erabili diren aitzakiak entzuten jarraitu beharko dugu: irakaskuntza-askatasuna dugu, gurasoen nahia errespetatu beharra dago, kokapen geografikoa ez da egokia, eskola-plaza gutxi daukagu... Baina aitzakiak biluztuz gero, elkartasunik eza agertzen da; eta horrek berdin erasotzen die ikastetxe mota guztiei: konfesionalei, ez konfesionalei, publikoei, pribatuei, erdaraz edo euskarazko irakaskuntzakoei...

Kontua da garrantzia ematen diogula eskolatze goiztiarrari, ingelesa irakasteari, lanbide-heziketa hobetzeari, edo bitarteko gehiago eta hobeak jartzeari, baina ezer gutxi esan eta egiten

dugu eskuartean darabilgun gaiari behingoz irmoki ekiteko. Eskola-komunitateko estamentu guztien eginkizuna da arazoari konponbidea jartzea; nahiz eta erabakiak hartu eta betearaztea politikari eta hezkuntza-teknikariei dagozkien. Denok ateratzen diogu mozkina –bai arlo ekonomikoan, bai kulturean– immigranteen etorrerari; hortaz, denok parte hartu behar dugu immigrazioak lekarzkigukeen ondorio txarrak ahalik eta leunenak izan daitezen. Arduradun politikoez ezin dute, ez lukete behar, heziketa polarizatuaren alde jokatu.



«Badakite nola jokatu! Haurdun edo umearekin etorten dira hona, horrela ez dituztelako itzularazten, eta hemengo osasun-zerbitzuez, Gizarte Segurantzaz eta berorren abantailez doan aprobetxatzen direlako!»

Ia-ia egunero, kaiuko ziztrinetan, erditu beharrean batzuk, haur jaio berria besoetan dute-la beste batzuk, leher eginda iristen dira Espainiako kostaldetara emakume gazte askotxo. Ama gazte horiek beren eta umeen bizitzak arriskuan jartzera heldu dira, umeok mundu hobe batean hazteko aukera izan dezaten. Bidaia beldurgarri bati, basamortuko zeharkaldiari, patera edo kaiuko estutasunari, haizearen indarrari, olatuen erasoari, hotzari, eta neurrigabeko izuari aurre egiteko prest zeudela, abiatu ziren Europako *paradisura*. Gure garaiko heroien modukoak dira oinazeari baretasunez aurpegi ematen dioten emakume horiek.

Heroi modukoa izatea, halere, gutxi estimatzen dugu Europa aberats honetan, eta gure onespelik eza izaten da haiek egindako balentriaren ordaina. Ontzitik lehorrera atera ondoren, zenbatu eta kontzentrazio-eremu antzekoetan sartzen ditugu 18 hilabetez, beren sorterrira bidali baino lehen. Ez dago erako hitzik egoera hori eta emakume horiek sentitzen dutena deskribatzeko. Tira, bai, hitzik badago; baina egunkariko orrialdea pasatzea nahiago izaten dugu, horrelako albisteak irakurtzeak urduri-edo jartzen gaituztelako.

Eta, ustez, gizarte-zerbitzuen kontura bizi nahi duten ama horietaz gain, itsasoaz bestaldean, Afrikatik Europaranzko bide latza hartu duten nerabeen eta helduen amak ere baditugu. Aberastasunaren eta pobreziaren arteko amildegiko okerreko ertzean gelditu dira larri, kezkatuta, joandako bere seme-alaben berrien zain, loteria gaizto horren emaitzaren zain.

4.3. HEDABIDE ETA POLITIKARIEN ERANTZUKIZUNA

Jende gehienak ez du erlaziorik immigranteekin, pertsona gutxik ezagutzen ditu etorkinak zuzenean, baina denok ditugu horiei buruzko iritziak. Aurreiritziak, onak ala txarrak, hedabi-

deen bitartez heltzen zaizkigu. Jendeak errealitate mediatikoek zabalduko errealitatea jasozten du, eta «hori da errealitatea». Hedabideak dira immigrantea ezagutzeko iturri nagusiak. Jendeak entzun duenari buruz hitz egiten du, eta ez bizi izan duenari buruz, ezagutu duenari buruz. Hori da arazoa.

«Marea geldiezia» («Una marea que no cesa») 1999ko abuztuaren 9an Espainiako *El País* egunkariko lehenengo orrialdean agertutako titular horrek argi eta garbi erakusten du hedabideek erabilitako adierazpenek izan dezaketen eragina jendearen pertzepzioan. Etorkinez dihardu, isilpeko etorkinez, hain zuzen ere. Metafora kezkarria da, konnotazio arriskutsuak ditu (autoreak nahi ez dituenak, agian). Giza uholdea da, «erasotu, inbaditu eta urperatuko» gaituena. Baina, inbaditzen gaituen uholdetik urrun, araurik gabeko liberalismoaren bits mingotsa dira zoritxarreko horiek, munduan zehar lekualdatzen diren milioika pertsona horiek.

Melillako *musulmana* idazten badugu *herritar* idatzi beharrea, musulman eta kristauen artean zatitutako hiriaren irudia izango dugu: kristauak –espainolak– eta musulmanak –mairuak (marokoarrak)–. Horrelako deituren menpe, indar-harremanak ezkututzen dira, zokoratzeko moduak, gorrotoa, eta, oroz gainetik, ezjakintasuna. Horrelako deiturek ondorio latzak ekartzen dituzte.

Ezkutuko migrazioaz hitz egiterakoan «ilegal» hitza erabiltzen badugu, etorkinok beharrezko dokumentazioa ez dutela esateaz gain, delinkuentziarekin erlazionatzen ditugu. Hitz horren konnotazio argia honako hau da: *pertsona horiek* sistemaz, estatuaren eskuzabaltasunaz, aprobetxatzen dira. Horrelako deskribapenek adierazten dute, ez bakarrik herrialde pobretuetako migratzaileek ez dutela beste herri batean sartzeko eskubiderik, baizik eta ez dutela inolako eskubiderik.



Ez deitu ilegal dokumenturik ez duten etorkinei.

Ez horixe; ilegalak dira gauzak edo eginak, pertsonak sekula ere ez.

Ea behingoz ikasten dugun: dokumenturik gabeko etorkin esaten zaie.

Edo *papergabeak*.

Horixe, bada.

Zenbait pertsona egon daitezke, estatu jakin baten bizitzeko eskatzen dieten dokumentaziorik gabe, baina horregatik ez diote eskubideen subjektu izateari uzten, eta horrek ez ditu legegaren babes-esparrutik kanpo jartzen. Pertsona horiek egoera irregularrean daudela esan beharko genuke.

Benetako errealitatetik hurbilago dagoen hizkuntza erabili beharko genuke; hau da, jatorri-lekua eta familia utzi behar izan dituztenen sufrimendutik eta gizarte hartzaileen ulertezintasunetik gertuago dagoen hitz egiteko modua aurkitu beharko genuke.



Ardura handia eskatu behar diegu hedabideei eta politikariei. Immigrazioak delinkuentzia dakarrela, inbasio-mehatxua dagoela esaten dutenean; gure gizarte zerbitzuez aprobetxatzen direla adierazten dutenean, edo immigrazioa eta langabezia elkarri lotuta agertzen diren albisteak argitaratzen dituztenean, kanpotarrei buruzko mezu negatiboa zabaltzen ari dira, eta pertzepzio horiek, zer esanik ez, jendearen iritzia elikatu eta finkatzen dute.



«Ni ez naiz arrazista; immigraute-uholdeak dakarren hondamendiaren aurrean, nire alderdiak lasai eta adorez erantzuten du».

«Zu bai dotorea, diputatu jaun hori!».

*Integrazioa eta
kulturartekotasuna*

5

5.1. ZER DA INTEGRATZEA EDO GIZARTERATZEA?

Amaitu aurretik, komeniko litzateke integrazioari eta kulturartekotasunari buruzko go-goeta zenbait egitea; batetik, kontzeptu horien esanahiaz eta irismenaz jabetzeko, eta, bestetik, etorkizunean aurreikusten ditugun arazo eta auzien aurrean jarrera egokiagoa hartu eta jokabide zuhurragoa eta solidarioagoa izan dezagun. Ondoko lerrootan, bada, esandakoa azaltzen saiatuko gara.

Harira etorrira, integratzea edo gizarteratzea hauxe dela esan dezakegu: zerbait dela-eta baztertuta dagoen pertsona –autoktonoa zein kanpoko– edo jende talde gutxitu oso bat gizarterako kide bihurtzea, betiere gainerako kide ororen maila berean, bai izatez, bai eta zuzenbidez ere.

Askotan, integrazioaz edo gizarteratzeaz hitz egiten dugunean, asimilazioaz aritzen gara, oharkabeaz; horregatik, bizikidetzaz-ereduak hizpidera ekarri eta horietako bakoitzak dituen bereizgarriak argitzeari ekingo diogu:

- **Asimilazioa:** bizikidetzaz modu honen arabera, etorkinak gizarte hartzaileara moldatu eta egokitu behar du. Hala egitera, immigranteak, komunitate hartzailearen kultura, ohiturak eta arauak bereganatuko ditu. Egokitzeko prozesua, beraz, alde bakar baten eginkizuna da soilik, eta, sumatzekoa denez, biztanleria immigrantearen bizkar gelditzen da. Etorkinak berak ibili behar du integrazteko bidea, jendarte hartzaileak ez baitu inongo moldaketarik egin behar. Asimilazioa bizikidetzaz-eredu hartu duen gizarteak homogeneousatzerantz jotzen du ezinbestean, ahalegin horretan atzeritarrak bere kulturaren bereizgarriak alde batera utzi behar izaten dituelako. Bidezkoa ote da?
- **Kultura-dibertsitatea eta kulturartekotasuna:** bizikidetzaz-eredu honen arabera, ez etorkinek ez bertakoek ez dituzte galdu nahi –ezta behar ere– beren identitatearen bereizgarriak. Integrazioa helburu duen egokitzapena honako honetan oinarritu beharko genuke: erkidego guztiek bizikidetzarako oinarri komun batzuk onartu beharko lituzkete, eta, hortik aurrera, bizilagunak orok aukera izango lukete beren kulturaren bereiztasunei eusteko, baldin eta lehendik adostutako oinarri komunei kalterik egiten ez badiete, jakina, horiexek baitira komunitate-sena indartu eta zatiketa soziala eragozten dutenak.

Komunitate bakoitzak bere kultura, tradizio, ohiturak, eta abar mantendu eta zaintzeko eskubidea izango luke, baina betiere giza eskubideak errespetatuz gero. Kultura-dibertsitatea oinarri duen ereduaren printzipioek giza eskubideak dituzte muga, eta muga horretatik kanpo ezin dira onartu, ezta gauzatu ere. Multikulturalismoaren aitzakian (ohiturak, arauak, antzinako tradizioak direla-eta) ezin baititugu giza eskubideak urratu.

Heterogeneotasuna gauzatzea, hala ere, ez da erraza. Ez da lan samurra kulturen arteko elkarrizketa piztu eta iraunaraztea; bideak egin behar ditugu sor litezkeen gatazkak hitz eginez gainditzeko. Dibertsitateari heldu nahi dion jendarteak immigranteen eta autoktonoen artean interakzioa bultzatzen duten esparruak bilatu behar ditu, ez bairik gabe.

Asimilazio-ereduan jazotzen denaz bestera, kulturartekotasunean funtsaturiko gizarteak heterogeneotasunerantz jotzen du; ezberdintasunarekiko jarrera irekiak sustatzen ditu, eta herrialde berean bizi diren kolektiboek elkarren onespenez gozatzen dute. Horregatik, heteroge-

neotasunaren onuraz ohartuta, hobe luke gizarte hartzaileak prestaturik –hezita– egotea biztanle autoktonoek etorkina haien identitatearen galgarritzat jo ez dezaten; bestela, beti argudio bila dabilzan xenofoboek ezin ordainduzko mesedea egingo litzaieke.



Bizikidetza eta kulturartekotasunaren aldeko jaialdi bat. Kirola, musika,...
elkarguneak aurki daitezke nahi izanez gero.

Epilogo

Kulturaz eta etniaz ezberdinak diren komunitateen arteko bizikidetzak baketsua eta tolerantzia lortzeko, integrazioa esaten diogu. Horretarako, errespetua ezinbestekoa da. Jendeak ez du maitasuna eskatzen, bere duintasunarekiko errespetua baizik. Begirunez, adeitasunez jokatzea da errespetua. Entzuten jakitea. Horixe baino ez du eskatzen atzerritarrek; ez maitasuna, ez adiskidetasuna. Azken horiek, agian, gerora sortuko dira, etxeoak eta kanpokoak elkar hobeto ezagutu eta estimatzen hasitakoan.

Ikas dezagun, bada, aurreiritziak albo batera uzten eta estereotipoek fabrikatutako *orokorkeriei* entzungor egiten. Arabiar batek lapurreta egiten badu, arabiar guztiak lapurrak direla ondorioztatzea arduragabekeriak jokatzea da. Erne egon behar dugu halako baieztapenen aurrean. Prest egon behar dugu asmo gaiztoz zabalduko kliseak zentzuzko argudioekin tarratatu eta apurtzeko.

Gogora dezagun arrazistak gezurriak direla –egiak ez dielako batere ardura– eta edozer asmatu eta esateko ausardia dutela. *3 milioi langabe = 3 milioi etorkin sobran* eta handiagoak esango dituzte. Horrelakoak sinesteak eta hedatzeak izan ditzakeen ondorioak bidegabeak ez ezik, guztiz kaltegarriak dira bizikidetzarako, eta integrazioetik urruntzen gaituzte.

Integrazioarako politikak diskriminazioaren aurkako legeak bultzatu behar ditu, eta gizarte-zerbitzuak erabiltzeko erabateko berdintasuna ziurtatu behar die herritarrei, jatorriz nongoak diren kontuan hartu gabe. Administrazioek gizareratze-programak eta berak ebaluatzeko mekanismoak taxutu behar dituzte. Baita sistema demokratikoan parte hartzeko eskubidea eta modua zehaztu (botoa emateko eskubideari buruzko eztabaidaz ari gara) eta bermatu behar diete ere bizilagun guztiei.

Bi alderen eginkizuna denez gero, integrazioak –esana dugu– elkarrizketa du ezinbesteko tresna, eta hori sustatu behar dugu kultura ezberdinak elkar aditzera hel daitezten. Hala, etengabeko elkarrizketa baliatu behar dugu integrazioaren hobe beharrez. Baina ez bakarrik hezkuntzaren esparruan, baizik eta gizarteko eragile, udal, erakunde politiko, kirol-elkarte eta abarrek ere esku hartu behar dute etorkizun hurbilean sortuko diren arazoei aurpegi eta konponbidea emateko.



Kultura eta erlijioen arteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Biltzarreko partaideak Euskararen Etxean (Bilbon, 2006ko abenduaren 13an).

Bibliografia

ARRAYET, EDUARDO eta MTZ. LIZARDUIKOA, EKAIN: *Giza migrazioak lehen eta orain*, Gaiak, Donostia, 2007.

GAIK ARGITALDARIA: *Arrazismoa beti bizirik*, Gaiak, Donostia, 1992.

ALVITE, J.P. eta BESTE BATZUK: *Racismo, antirracismo e inmigración*, Gakoa, Donostia, 1995.

GOYTISOLO, JUAN eta NAÏR, SAMIR: *El peaje de la vida*, Aguilar, Madril, 2000.

WERNER, K. eta WEISS, H.: *El libro negro de las marcas*, De BOLS!LLO, Barcelona, 2005.

BAGNINI, JULIAN: *El cerdo que quería ser jamón*, Paidós, Barcelona, 2007.

JELLOUN, TAHAR BEN: *Arrazismoa nire alabari azaldua*, Axuri beltza, Bilbo, 2001.

ALDIZKARIAK

EKOLOGISTAK MARTXAN: *La deuda ecológica y nuestro modelo energético*, Bilbo.

HIKA, Inmigración: *Nuestros miedos e inseguridades*, Bilbo, 2008ko azaroa.

ARGIA, Inmigrazioa: Mahai ingurua, Larrun 84.

WEB ORRIAK

<http://www.mugak.eu>

<http://www.SOSArrazakeria>

<http://www.acnur.org>

<http://www.alboan.org>

<http://www.es.amnesty.org>

<http://www.ikuspegi.org>

<http://www.argia.com>

<http://www.berria.info>

<http://www.ManuelFerrol.com>

<http://www.portaldelexilio.org>

<http://www.intermonoxfam.org>

<http://www.edualter.org>

<http://www.aulaintercultural.org>

<http://www.euskalnet.net>


<http://www.ciudadredonda.org>

<http://www.migracionesforzadas.org>

<http://www.mugak.info>

<http://www.euskonews.com>

<http://www.juandegaray.org>



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3013-3



9 788445 730133

Salneurria: 14 €